

pertsonaia

kepa sojo zine zuzendaria

gaia

musikherria herri diskoetxea

euskara

araba euskaraz. ekainak 18

musika

atomoog taldea

gizartea

okupazioa: gasteizko kutxitril
ateneoa

arabako bazterrak

zigoitia. mairuren auzia

QEU

2,40 €

2006ko ekaina

162

matauko-katmandu
bizikletaz
iker Ipz de vicuña





Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

SUMARIOA 162



9

zeregin 4
ekaineko agenda

iritzia 6
euskararen erabilera epaiketagai

kaletik / idazleenzutabea 8
komunikabideak / oskar espinosa

geupertsonaia 9
kepa sojo zine zuzendaria

batbitan 12
matauko-katmandu bizikletaz:
iker lpz de vicuña

geugaia 15
musikherria herri diskoetxea

batbitan 18
araba euskaraz'06. ekainak 18. armentia

artetxokoa 20
oscar G ileapaintzailea

proposamenak 22
haur & gazte literatura
cd-a&liburua&zinea / txabi arnal

lauhitzetan 23
europako parlamentua: orain euskara baietz /
beste

batbitan 24
atomoog musika taldea

bidaia / errezeta 26
basamortuan barna / arkume hanka erreak

arababixotzian / historiazutabea 27
cristina fernandez / erlantz urtasun

batbitan 28
okupazioa: gasteizko kutxitril ateneoa

euskaltasunean. gasteiz 30
veronica diaz de antoñana

umorea 31
iñigo sarasola

batbitan 32
zigoitia. mairulegorretaren auzia

historia 34
judimendiko jaiak (gasteiz). 30 urte



15




18



24



30



GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariako taldeak egin, bideratua eta kudeatua | **erredakzioa:** Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | e-mail: geugasteiz@grn.es | www.geugasteiz.com | **zuzendaria:** estibx breñas glz. de zarate | **aldizkariako batzordea:** josune velez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estibx breñas eta david alvez | **kazetariak:** josune velez de mendizabal, edurne begiristain, saioa fdz. de arangiz eta maite lekue | **azaleko argazkia:** edorta sanz | **argazkiak:** edorta sanz | **bestelako irudiak-bilaketa:** estibx breñas glz. de zarate, david alvez | **testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:** estibx breñas glz. de zarate | **itzulpenak:** edurne begiristain, estibx breñas, aztiri | **maketa:** dalvez-komunikazioa / patirke sanz laguardia | **umorea:** iñigo sarasola | **kolaboratzaileak ale honetan:** oskar espinosa, txabi arnal, erlantz urtasun, cristina fernandez, esteban umerez, koldo camon eta diocesanas-mendiozorrotzako ostalaritza eskola. | **publizitatea:** aldizkariako batzordea eta edurne begiristain | **sustapen-harpidetza saila:** edurne begiristain, estibx breñas glz. de zarate | **inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berziklatuaz egin dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



1 ERAKUSKETA: IÑAKI ZORRAKIN

> 'bizi osoa natura iruditzen' uztailaren 2ra arte, olarizuko etxaldean (gasteiz)
> astearte-ostirala (17:00-20:00) / asteburuak-jaiak (11:00-14:00 / 17:00-20:00)

antolatzailea: ani
informazioa: 945162696-ceed-min@vitoria-gasteiz.org



1 DENETIKOAK GASTEIZKO MONTEHERMOSO KULTURUNEAN

> ikastaro kulturalak, erakusketak, zuzeneko emanaldiak, haurrentzako lan-tegiak, musika, bideoa, zinea, dantza, moda... (euskaraz: mikel egiluzen kontzertua eta haurrentzako tailerrak) ekainean zehar
www.vitoria-gasteiz.org
ikus. 5. orr.



2 ANTZERKIA: ZIGOITIA ARETOAN

> zigoitiko nazioarteko per-sona bakarrek antzerkien l. Jaialdia
ekainak 2, 9, 16, 30
leo bassi; marta carballo; ramon barea; riki lopez
bengolarra 1, ondategi (zigoitia-araba) ikus. 5. orr.

2 URKABUSTAIZKO IV BERTSO SARIA.

> bertsolariak: onintza enbeita (bizkaia; pasa den urteko txapelduna); gorka lazka-no (bizkaia); jon elizetxe (nafarroa); jokin labayen (gipuzkoa); izar mendiguren (araba); zumai murua (iparralde)
ekainak 2, izarrako (urkabustaiz-araba) frontoiko squash aretoan, 20:00etan
antolatzailea: urkabustaizko lan eta jolas elkarteak

2 DANTZA & MUSIKA: GASTEIZKO UDAL FOLKLORE AKADEMIA

> ekainak 2: dantza plaza (aihotz plaza)
> ekainak 8: azken entzunaldia (principal antzokian)
> ekainak 16: dantza plaza (aihotz plaza)
> ekainak 23: dantza plaza (sefarad plaza, judimendi auzoan)
emanaldi guztiak 20:00etan
945162602 / gufa@vitoria-gasteiz.org

3 KONZERTUA: DOCTOR DESEO

disco berriaren aurkezpena: 'detras de los espejos rotos' gasteizko azkena aretoan, 21:00etan
sarrera: 12 euro (a.a) / 15 (l)
www.azkena.com

3 KONZERTUA: KURAIA + TALDE GONBIDATUA

> 18/98 + gasteizko taldeak antolatua
gasteizko gaztetxean, 21:00etan



3 TOPAKETA: ALBOKA V. TOPAKETA HERRIKOIA

> otazun (araba), 11etatik aurrera egun osoz albokariak kalejira; entzunaldia; herri bazkaria; inprobisaketak; zozketa eta musika emanaldia (ibon koteron & taldea / kukuma taldea)
www.alboka.net

3 DJ MAKALA

> denboraldiaren amaiera jaia landatxon (gasteiz), 22:00etan
www.gauekoak.com / gaueko-ak@gauekoak.com
/ kolore biziak elkarteak: 945204009 (9:00-13:00 - igor uriarte)

3 MINTZA EGUNA

> mingaina askatzeko jai eguna iruñerrian, 11:30etik aurrera (gaste-lu plaza) egun osoz
www.topaguna.com



4 ESKOLA PUBLIKOAREN JAI

> oñatin, egun osoz

6 GASTEIZKO GAZTETXEKO LITERATUR ASTEA

> egitaraua: antitertulia, baka-rrizketa, hitzaldia, dantza eta kontzertuak. ekainak 6-11
ordutegiak: ikus. 5. orr.

9 KALDEARTE: KALEKO ANTZERKI & ARTEEN NAZIOARTEKO ERAKUSTALDIA

harezko eskulturak, kaleko antzerkia, akrobaziak, momak, malabareak...
gasteizko kaleetan barrena, ekai-nak 9-11
www.vitoria-gasteiz.org

14 KONZERTUA: ETXAK & TAC-TEQUETE

taldeen informazioa: ikus. hemen
ekainak 14, gasteizko principal antzokian, 20:30ean (5 euro)
kultur plangintza eta programa-zio zerbitzuak
www.vitoria-gasteiz.org/teatros

15 KONZERTUA: MIKEL EGI-LUZ BAKARLARIA

> bere lehen diskoaren aurkez-pena ('garai hobeak') gasteizko montehermoso kultu-runean (falerina lorategian), 20:00etan
www.vitoria-gasteiz.org

16 JUDIMENDIKO JAIK (GAS-TEIZ). 30. URTEURRENA (1975-2006)

> argazki erakusketak: gastronomia lehiaketa (ekainak 17); futbito txapelketa; mus txapelketa; euskal jaia; kontzertuak; pailazoak...
ekainak 16-26
judimendiko jai batzordea
ikus. hemen

18 ARABA EUSKARAZ

> armentian egun osoz
www.araba-euskaraz.org



18 MENDI IRTEERA: GEUREKIN MENDIRA / 06

> olarizu, lendiz, arrieta (1006 m), zaldian eta ARABA EUSKA-RAZ (armentia)
egun osoa ibilaldia
arduraduna: maite-945282326
geu elkarteak mendi taldea
www.geugasteiz.com

21 PAILAZOAK: PIRRIKX ETA PORROTX

> gasteizko judimendiko jaietan sefarad plaza, 17:30ean

25 EUSKAL JAIA

> artisautza, herri kirolak, dantza, txalaparta, txahal dastaketa, herri bazkaria...
judimendiko jaietan, goizean zehar

25 KONZERTUA: MIKEL URDANGARIN + MALATU

> gasteizko judimendiko jaietan 19:30ean



27 KULTUR ERROTA: DIAPORA-MA

urtzi urkuzi & urko menaia gasteizko parral tabernan, 20:30ean
geu elkartearen ekimenez
www.geugasteiz.com

29 GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA / 06

> liburua: jon alonso, 'agur, dar-win, eta beste arkeologia batzuk', pamiela-2001
dinamizatzailea: iban zaldia hikaatenean (pintore kalea, 13), 20:00etan
geu elkartearen ekimenez
www.geugasteiz.com

gasteizko judimendi auzoko jaiak. 30 urte

ekainak 16-26
> argazki lehiaketa:
'judimendiko jaiak, 30 urte'
> ekainaren 16tik 22ra bitartera: gazteentzako tailerrak, nazioarteko jolas jaialdia, haurrentzako animazioa, pirritx eta porrotx, reggeaton tailerra, adinentzako jaialdia, munduko afaria
> ekainak 17: gastronomia lehiaketa
> ekainak 22: gazte eguna > hitzaldiak (okupazioa / venezuela); dantza & bertsolaritza tailerra; bertso hop bazkaria; kontzertua: gartzen & oliba gorriak...
> ekainak 23: haur jolasak, txokolada, txistorra & odolki jana, dultzaineroak, txupinazoa, dantza plaza, kalejira: momotxorroak & joaldunak, joselu anaiak, suak eta akelarrea
> ekainak 24: umeentzako jolasak, trikilaria, gurasoak abesbatza, kale antzerkia eta berbena
> ekainak 24: futbito txapelketa mistoa eta mus txapelketa
> ekainak 25: euskal jaia (goizez)
>> artisautza, herri kirolak, dantza, txalaparta, txahal dastaketa, herri bazkaria...
> ekainak 25: kontzertua > mikel urdangarin & malatu

euskal eskola publikoaren 15. festa

ekainak 4. oñatin, 11:00etatik aurrera
'mugak gaindituz, herriak biribilduz'
www.ehige-jaia.org

araba euskaraz

ekainak 18. armentian (gasteiz)
www.araba-euskaraz.org
ikus. 18. orrialdea

ueu. 34. udako ikastaroak

eibar / baiona / iruñea
uztailak 3-21
matrikula epea: ekainak 18
www.ueu.org

inaki zorrakin. erakusketa. 'bizi osoa natura irudikatzen'

olarizuko etxaldean (gasteiz), uztailaren 2ra arte ordutegia>astelehen-ostiralak: 17:00-20.00 / asteburuak-jai egunak: 11.00-14:00-17:00-20:00 erakusketan bere obra osoko milaka marrazki egongo dira ikusgai, horietako asko harrigarriak. argazkiok inakiren lagunek katalogatu dituzte, hori hil eta gero. erakusketak, berriz, bere lana gogoratzea eta natura aztertzeke eta islatzeke modu paregabearen lekukotasuna uztea ditu helburu. informazioa: arabako natura institutua

ernestina champourcin & ignacio aldecoa & becerro de bengoa lehiaketak

>ernestina champourcin XVII. poesia lehiaketa
>ignacio aldecoa XXXV. ipuin lehiaketa
>becerro de bengoa XVIII. saiakera lehiaketa
lanak aurkezteko epea: irailak 8
informazioa: arabako foru aldundia-kultura

etxak & tactequete

ekainak 14, gasteizko principal antzokian, 20:30ean (5 euro)

>etxakek, bere egungo zuzendari artistiko kepa junkerak sortutako euskadiko txalaparta konpainiak, bere ikuskizuna aurkeztu du. bertan, zurezko eta harrizko txalapartekin, kartoizko tutuekin, panderoekin eta beste zenbait perkusio instrumentuekin, musikagiro eta musika-espazio berriak sortuko dituzte.

>tactequete duela 8 urte sortutako taldea da, eta honako instrumentu hauek erabiltzen ditu: jatorri askotako danborrak eta flautak, hondakinekin egindako instrumentuak, soinu-aukera handiak dituzten eguneroko objektuak, steel drums deitutakoak, txilibituak, baxuak eta abar. kepa junkera musikari handiak ere joko du bi taldeekin batera.

9. igartza literatura-sorkuntzako beka idazle berrientzat

bekak 6.000 euroko diru-laguntza izango du. proiektuak ekainaren 30era arte bidal daitezke (beasaingo udaleko euskara zerbitzura). argibideak: euskera@beasain.net

pedro de atarrabia 18. literatura sariketa

kontakizun laburren sariketa da. saria 2.500 euro izango dira modalitate bakoitzean. gai librea. idazlanak aurkezteko epea: irailak 15. antolatzen du: atarrabiako udaleko euskara zerbitzua / ccvillava@cin.es

gasteizko montehermoso kulturunea

>kultur ikastaroak

>erakusketak

>>karin dolk. jira eta bira (vtv - gli) / ekainaren 18ra arte / klaustroan

>>itxaso mendiluze. bestelako marrazkiak (vtv - gli) / uztailaren 9ra arte / beheko solairuan

>>arte eta lanbide eskola. 'hemen nago' / ekainak 9-uztailak 2

>zuzeneko emanaldiak>ostegunak zuzenean>ostegunero, 20:00etan, falerina lorategian

>>ekainak 1: "ruaille-buaille" / zeltiar musika

>>ekainak 15: mikel egiluz (kantautorea)

>bestelako ekintzak

gasteiz lurralde ikuskorra / haurrentzako lantegia. moda (euskaraz & gaztelaraz) / skate video zikloa & 'videoflips' lehiaketa & bideoen antologia / musika garaikidearen inguruko hitzaldiak / haurrentzako lantegia. perkusioa (gaztelaraz) / neff erakusketa: lan europarrak, bideo-sorkuntzaren klasikoak, estreinaldiak... / belaunaldi digitala. joan fontcuberta. tailerra & hitzaldiak / dantza ikuskizuna. guillermo weickert / haurrentzako lantegia. animazioa (euskaraz & gaztelaraz) / 2005eko ikus-entzunezko laguntzen proiektuak: film labur, dokumental eta esperimental / belaunaldi digitala-hitzaldiak / diaporama; zeru urdina / bideojokoak: haur-jolasak?-ikus-entzunezkoen VIII. jardunaldiak / jam tb. 2006ko tb parte-hartzeen festa-mixed by mia makela-soul dj session / vtv amaiera-araba moda ikuskizuna

gasteizko gaztetxeko VI. 'literatur astea':

'liburutegian aparkatu' ekainak 6-11

- ✓ Asteartea 6 (19:30etan) 'Lo siniestro' Antitertulia filosofikoa
- ✓ Asteazkena 7 (19:30etan) '3 bakarriketa, 3 saiakera' Ruben Sanchez, Egoitz Zelaia eta Jon Plazaola
- ✓ Osteguna 8 (20:00etan) 'Ponche, ácido, lisérgico' hitzaldi ilustratua. Ai Laketi!!-en eskutik (21:30etan) 'Chua Alba y su grupo' Kontzertu flamenkoa
- ✓ Ostirala 9 (21:00etan) 'Volando Boys' Rumba kontzertua (22:00etan) 'Codigo Norte' Hip-Hop kontzertua
- ✓ Larunbata 10 (21:00etan) 'Enlátame' Dantza garaikidea (22:00etan) 'Napoka hiria' Kontzertua. Eibartik. 'Dj flipi'
- ✓ Igandea 11 (21:00etan) 'Elektrogab' Jazz kontzertua. Superjazzmisticofrescoy animoso.

geu elkarteak ekainean www.geugasteiz.com

ekainak 18

mendi irteera: geurekin mendira / 06

>olarizu, lendiz, arrieta (1006 m), zaldiaran eta ARABA EUSKARAZ (armentia)

egun osoko ibilaldia
arduraduna: maite-945282326

geu elkarteak mendi taldea

www.geugasteiz.com

ekainak 27

kultur errota: diaporama urtzi urkuzi & urko menaia
gasteizko parral tabernan, 20:30ean
geu elkartearen ekimenez
www.geugasteiz.com

ekainak 29

gasteizko irakurle kluba / 06
>liburua: jon alonso, 'agur, darwin, eta beste arkeologia batzuk', pamiela-2001
dinamizatzailea: iban zaldua
hikaateneoan (pintore kalea, 13), 20:00etan

zigoitiko nazioarteko pertsona bakarrek antzerkien I. jaialdia

zigoitia aretoa 945 46 44 00
bengolarra 1, onategi
gehienez 6 sarrera/pertsona
bono-txartelak: gazteak: 12 euro.
helduak: 25 euro
20:00etan

>leo bassi: 'la revelación'

ekainak 2 junio

6 euro (15-21 urte) / 11 euro (22tik aurrera)

maitatua bezain gorrotagarria den aktore polemiko honek aurkeztu du zigoitia aretoan bere azken antzezlanak: 'la revelación'. kasu honetan ere, probakzioa ez da helburua, hizkera baizik.

>marta carballo: 'cantaclown'

ekainak 9

clown emanaldia

2 euro (10-14 urte) / 3 euro (15-21 urte) / 5 euro (22tik aurrera)

carballo xarmagarria, albaceten jaio zen, baina gaur egun bere bizilekua danimarka da. bihotzez, hitzik gabe, azalarazten digu unibertso bat. bertan edozein gauza gerta daiteke, non isiluneak ere dibertigarriak dira. antzeztu duenak gogorazten digu ze erraza eta polita izan daitekeen bizitza.

>ramon barea: 'los perjuicios del tabaco' (bakarriketa)

ekainak 16

5 euro (15-21 urte)

10 euro (22tik aurrera)

bareak, tabakoaren kaltetasuna erabiltzen du ivan ivanovichen zoritxarreko bizitza kontatzeko. harrigarria badirudi ere, atsekabea eta pentsamendu tragikoek itxura komikoa hartuko dute.

>riki lopez. kontzertua

ekainak 30

3 euro (15-21 urte)

5 euro (22tik aurrera)

buruan ez ezik, ahoan ere bilorik ez daukan pertsonaia honek, abesti harrigarriak eta barrez lehertzeko bakarriketak nahasten ditu. gitarra eta aurpegiaren keinu biziz sarkasmo eta ironiaz beteriko emanaldia aurkeztuko du.



[esteban umerez argaia*]

(erabili.com / 2006-05-15)

EUSKARAREN ERABILERA EPAIKETAGAI

Legelari euskaldunek osatutako Justizian Euskaraz Elkarteak honako adierazi nahi du epaitegietan, euskararen erabilerarekin zerikusia duten azken gertakarien aurrean:

Bilboko 4. Zigor Epaitegian, 403/2005 zenbakidun Prozedura Laburtuan A.B.L., autoritateari obedientzia eza larria deliktuaren egile gisa zigortu berri izan da, (Egintza: beste auzi saio batean -Bilboko 5. Zigor Epaitegiko 117/2004 auzia- lekuko gisa deklaratzera deitua izan zen A.B.L. eta euskaraz hitzegin nahi izan zuen arren, itzultzaile-interpretaririk gabe, epaileak itzultzailea onartzera behartu zuen, honek muzin eginez)

EPAITEGIETAN, EUSKARAREN ERABILERAREKIN ZERIKUSIA DUTEN AZKEN GERTAKARIEN AURREAN, 'JUSTIZIA EUSKARAZ' ELKARTEAK HONAKOA ADIERAZI NAHI DU:

Lehenenegoa: Gure Elkartea, aipatu auziari buruzko informazioa aztertuta, gaia ez dela berria adierazi nahi du. Tamalez.

Euskara ofiziala ere baden epaibarrutietan, euskara, gazteleraren pareko erabili nahi izateak dituen ezinak aspaldikoak dira eta kalteak, galantak. Hori ez da berria. 1982. urtean azaroaren 14ko 10/1982 Legea ('euskararen erabilpena arauzkotzeko oinarritzko legea') onartu zenetik, aurrerapausu estrukturalik eratzen sikiera ez da saiatu egiten Justizia Administrazioan.

Bigarrena: Itzulpena ez da bidea: edozein arrazoiatatik justizia administrazioaren aurrean agertu behar duenak euskaraz jardun nahi badu, itzultzaileen bidez aritzea da aukera erreal bakarra, gaur egun. Itzulpena ez diren beste bideak martxan beharko lukete egon 2006. urtean, plangintza oso eta osatu baten barruan (esate baterako, euskaraz osoki jarduteko epaitegien eraketa).

Hirugarrena: Zigor Kodearen bitartez konpondu nahi dute ofizialtasun teoriko eta legezkoaren benekotasun gabezia. Eta horrek ez luke kabadarik izan behar, ustez, aurrerakoia, integratzailea eta anitza den Estatu batean. Zigorra ez da bidea.

Laugarrena: Bilboko 4. Zigor Epaitegian gertatu dena ez da justua, ez da arrazoizkoa eta Zuzenbidekoa, Soziala eta Demokratikoa den Estatu batekin ez dator bat. (Zer gertatu da? Asier Basabe Lejazegiren delitua, bera lekuko gisara deitutako auzi-saioan epaileak itzultzailea derrigorrez erabiltzeko aginduari itzultzailerik onartuko ez zuela erantzutea izan da, argi utziz, euskaraz, bestela, deklaratu zuela. Sei hilabeteko espetxe zigorra ezarri diote. Askatasun gabetzea, alegia.). Bide batez adierazi, Bilboko 3. Argibide Epaitegiak, Olatz Berrojalbiz Intxaurbe zigortu berri du "agintaritzaren agenteei desobeditze-falta" batekin (hamar isun-eguneko zigorra, egun bakoitzeko sei euro ordaintzera) Ertzain batek identifika zedila eskatuta, honek euskaraz zuzentzeko eskatu zion agenteari, egin ez zuena, esaten ziona ulertzen zuen arren.

Bosgarrena: Larriak dira gertakariok eta are larriagoak ondorioak. 'Justizia Euskaraz' Elkarteak deitoratu egiten dituela adierazi nahi du, garaiz kanpokoak izatearekin batera, indarreango legediaren interpretazio murritzaille eta kaltegarriena egiten du gaztelera erabiltzen ez duten beste hiritarrekiko. Euskararen normalkuntzarako plangintza integral eraginkor eta benetako baten premiaz ohartu nahi dugu. Garaia da Justizia Administrazioan ere euskararen normalkuntzaren aldeko benetako pausoak ematen hastekoa. Dagoeneko, berandu da•

(*esteban umerez argaia abokatua eta justizia euskaraz elkarteko lehendakaria da)

euskara ofiziala ere baden epaibarrutietan, euskara, gazteleraren pareko erabili nahi izateak dituen ezinak aspaldikoak dira eta kalteak, galantak

Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

HELADOS

Nestlé

bar restaurante
albéniz

Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

IZARRA TABERNA - JATEXEA

BITORIANO - ZUA (ARABA) • T. 945 430 073

XIXILU JATEXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

BUZTINTZA

KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

Uetzal

Hegoamerikako jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoila ertzean) Tfnoa: 945 25 03 52

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO. 143883

GASTEIZ

ARANBIZKARRA

ZURE AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

eguneko menua

DIBUtec

Paper Beraztiak
Arte Ederretarako Materialak
Ink jet original eta birziklatuak
Bulego Materiala
Enkoadernazioak
Plastifikazioak
Kopioak
Kamiseten Estampaketak

azkarpint

Imprenta / Inprimategia
Edozein inprimaketara

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

EGUR

Zurezko Teilatuak
Muntaiah Garabiarekin eta Berrikuntzak

Padurea kalea 12, 16 Pab.
Goian Poligonoa, Legutiano
01171 Araba
Tel.: 627 417 747
Faxa: 945 465 921
montajesegur@eushalnet.net

E4

eusko alkartasuna

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea

GA

Gazte Abertzaleak

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02 01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91 01004

Sartu

Zure arropa eta oinetakoa!

www.sartudenda.com

Kutxillera, 27 • Gasteiz • 945 260 710

ESERAL TABERNA

Egunerdiari, astaloharretik ostalera:

JANTOKI BEGETARIANO

SAN FRANTZESKO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 65 33

geugasteiz.com

HEGOALDE

Euskaltegia

Matrikula zaituz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

[maite lekue / saioa fdz. de arangiz]

KOMUNIKABIDEAK

Egungo gizartean gero eta komunikabide gehiago aurki ditzakegu kontsumitzailearen eskura. Hala ere, aukeraketa kritikoa egitea aski zaila izaten da kontuan harturik komunikabideek gero eta zailago dutela objektibotasunari men egitea. Honen harira, Gasteizko kaleetara atera gara jendearen lehentasunak jasotzera:

1. Zein da gehien kontsumitzen duzun komunikabidea? Zertarako?
2. Egungo komunikabideak objektiboak direla uste al duzu?
3. Zein eragin dute komunikabideek gizartearengan?



Dani Lopez de Pariza, soinu teknikaria

1. Irratia, konkretuki Hala Bedi irratia. Gehienbat entretenitzeko. Nire ustez komunikabide objektiboena da.
2. Ez. Ezin daitezke izan. Helburu konkretuak jarraitzen dituztelako.
3. Iritzi sortzaileak dira duda barik, eurek duten iritzi sozial konkretu bat helarazten dutelako.

Magda Alonso, langilea

1. Prentsa eta telebista. Prentsa irakurtzea gustatzen zait informatuta izateko, eta telebista berriz, entretenitzeko.
2. Denetarik dagoela uste dut.
3. Oso inportantea da duten eragina, jarraitzen duzun komunikabidearen arabera izaten da hori.



Aitor Durana, kazetaria

1. Telebista da gehien kontsumitzen dudana. Gehienbat albigistegiak eta kirol saioak ikusten ditut, eta informatzeko eta gaurkotasuna jarraitzeko ikusten dut.
2. Nik ezetz uste dut. Bitartekoek zuzendaritzak markatutako linea editorialaren arabera lan egiten dute eta horrexegatik objektibotasuna galtzen da.
3. Eragina nahikoa handia da. Argi dago komunikabideek gizartearengan iritzi bat sortzen dutela eta pertsonak normalean komunikabideak aukeratzen ditu bere ideologiaren arabera.

IDAZLEENZUTABEA

URMAEL ZAHARRA ETA LERTXUN GAZTEA

[oskar espinosa]



"Hek bezain aberats eta kunplitu izanen zen euskara ere"...

Igelak jauzi egin zuen harri batetik. Orduan, geldi-geldi zegoen ura uhintxo ez bete zen. Ahateak, zikoinak, lertxunak eta gainontzeko hegaztiak jada urrunetik etorriak ziren, eta beren irudi luzangak urmaeleko ispiluan dardaraz isladatu ziren, ur bazterreko ihiekin eta zuhaitzekin dantza kaotiko, zentzugabe batean.

Urmaeleko uretan, baita inguruko larreetan eta basoetan ere, udaberriko ikutze majikoak argia milaka koloretan desegiten zuen. Isiltasun gozoa soinu alaiek eta kantariak urratzen zuten. Natura ederki azaltzen zen edertasunaren alde, inoren gurtzerik behar ez duen aldare itzela bezala.

- Ura zikinegi dago eta igelak eta arrainak ez ditut ikusten urpean! - kexatu zen lertxun gaztea.

Antzinako urmael hartako ura iluna zen. Denborak goroldioa eta arrabak sortuak zituen, hasierako gardentasuna orobat estali arte. Inguruan zeuden beste laku eta angurien aldean, ordea, hegaztiekin hango ura nahiago zuten, inon baino erreago elikadura han aurkitzen baitzuten. Ausart burua uretan murgilduta, hegaztiei ikustea nahitaezkoa ez zitzaion, hondoan milaka zeuden igelak, arrainak eta karramarroak hartzeko. Antzara bidazti jakintsu batzuek oraindik esaten dute hura baino urmael emankorragorik munduan ez dagoela.

Udaberria joan zen. Eta gero uda. Urmaeleko urperatutako enbor makurak ikusgarri geratu ziren. Basoailarraren kantua pozgarri entzun zitekeen fruitu oparoengatik basoari eskerrak emanez.

-Zerua altuegi dago eta ez naiz ausartzen beste txoriekin batera udazkeneko bidaia egiten!- xuxurlatu zion berriro gazteak urmael zaharrari.

-Geure "txito" honi, oraindik ausardia eta fedea falta zaizkio, jatekoa bakarrik bilatzeko- itxaropenaz lertxun aitak lertxun amari.

-Jada heldua da! Guk ezin diogu askozaz gehiago irakatsi!- amak aitari triste.

Une hartan urmaela guztiz itzalduta zen, bapatean uretatik jauzita, milaka hegazti osatu zuten hodei migratzaile baten azpian. Igelek ez zekiten hegazti harrapari horiek nora joko zuten. Halere, laster bukatuko zen beraien atsedena, urmaeleko uholde berriaz, berriro arerio horiek itzuliko zirelako.

Lertxun gaztea, beste lertxun ahalke batzu bezala, uretan geratu zen, gurasoei begira, federik gabe, gosez eta beldurrez beterik. Aitak amari begiratu zion, eta honek ur azalean zegoen hosto galkor, lehorrak bati. Arrats ederrak urmael alde zailantzeko gorritz margotzen zuen, gainontzeko koloreak janean, etorkizuna ezjakinarekin igarlea baillitzan.

Gazte ahalkeen zaintzan ibilitako gurasoek ezin zuten ulertu nola urmael oparo hartatik beraien seme-alabek ez zezaketen bizigarririk lor. Jakintsuak ziren, berriz, besteak bezainbeste. Negu gorriaren susmo txarra jada hartua zuten. Haize hotza eta elurra laster agertuko zirela ondo zekiten. Halere, orain ez zuten argi ikusten, duela zenbait egun joandako lagunenganatz abiatzeko garaia heldua zitzaion...

"Hek bezain aberats eta kunplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ez bada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak"•

P. Axular. Guero.

KEPA SOJO, zine zuzendaria

“Publikoaren iritzia garrantzitsuagoa da kritikarena baino”

Europako Zine Berriaren Jaialdiaren bigarren edizioa baliatu du Kepa Sojok (Laudio, 1968) bere lehen film luzea aurkezteko: El síndrome de Svensson. Film laburren munduan eskarmentu handia duen zuzendaria da Sojo, eta akaso hargatik film luzerako jauzia ematea ez zaio zailegia irudit.





[edurne begiristain]

[arg.: edorta sanz]

El síndrome de Svensson zure lehen film luzea estreinatu berri duzu. Zer-nolako harrera izan du?

Maiatzaren 12an aurre-estreinatu genuen filma. Estreinaldi ofiziala uztailaren erdialdean izango da. Jendaurreko entseguaren ostean esan behar dut oso pozik nagoela, harrera bikaina izan baitu. Oso gustura geratu naiz. Egia da momentuan ez nintzela erabat ohartu jendearen jarreraz, baina egunak pasatu ahala eta mundu guztiarekin hitz eginda, oso sentsazio ona jaso dut. Komunikabideetan ere isla handia izan du pelikulak. Pozik nago.

Zazpi urte eman dituzu pelikula honetan lan egiten. Prozesu luzea izan da. Luzea eta zaila?

Film laburrekin zenbait sari irabazita nituen, eta 1999an ekin nion film luzearen gidoia prestatzeari. Gero produktorearen bila hasi nintzen. Ekoiztetxe askorengana jo nuen, eta lan nekagarria izan zen. Denera, ia hogeita hamar ekoiztetxetara jo genuen.

Azkenean Madrilgo produktora batekin akordioa sinatzea lortu genuen; gero Palentziako beste bat sartu zen 2003an; eta Gasteizko Sonora ekoiztetxea izan da egitasmoan sartu den azkena. Hasiera batean aurreikusita genuen 2004an hasiate pelikula grabatzen, baina ezinezkoa izan zen. Pelikula grabatzen hasteko zortzi aste baino ez falta zirenean, ekoiztetxeek esan zuten ezinezkoa zela filma egitea, banatzeko aukerarik ez zegoelako. Azkenean, hala ere, aurrera egin genuen. Zazpi asteko filmaketa egin genuen, eta bikain atera zen. Pelikula kalean dago jada, eta zenbait zinemaldira aurkeztuko dugu: Peñíscolan eta Alacanten, besteak beste. Eta aurre estreinaldiak egingo ditugu Zaragozan, Valentzian, Bartzelonan...

Urte horietan zehar izandako gorabehera eta oztopen eraginez, noizbait pentsatu duzu amore ematea, eta proiektua alde batera uztea?

Bai. 2004an kanpoaldeak bilatzen ari ginenean, produkzio-etxeetako batek esan zidan ezinezkoa zela pelikula aurrera eramatea. Orduan Laudiora bueltatu nintzen,

bat-batean lur jota ikusi nuen neure burua. Baina uda ostean ekoiztetxeek ideiaz aldatu eta pelikula egitea posible zela erabaki zuten.

Nolakoa izan da film laburretatik film luzeetara igarotzeko jauzia?

Aldaketa ez da oso latza izan, filmaketa ere antzekoa baita. Akaso, film luzearen kasuan, profesionaltasun handiagoarekin lan egiten du taldeak. Baina ez pentsa horrenbesteko aldea dagoenik bata eta bestearen artean.

Absurdo pop estiloko komedia egin duzula esan izan duzu. Zuk asmatutako estiloa da? Zer esan nahi du?

Nik asmatutako estiloa da, bai. Oinarriak dira, bizitzaren absurdua batetik, eta pop kultura eta musika, bestetik. Oso gustuko dut pop musika. Nahastu egin ditut bizitzaren absurdua, esperpentoa, eta kitch kultura. Horren harira, manifestu bat egin dugu barre egiteko. Izan ere, bestelako agiriak ere agertuz joan dira historian zehar: dogmaren manifestua, futuristena, dadaistena... Nire ustez hura "pose" edo

itxurakeria bat izan zen eta horregatik atera dugu absurdo pop-aren manifestua. Hala ere, nik uste hau izango dela absurdo pop-aren lehenengo eta azkenengo pelikula.

NEFF Europako Zinema Berriaren Jaialdiko antolatzaile lanetan ere ibili zara. Aurtengo edizioak arrakasta handia izan du. Etorkizuna bermatuta duela uste duzu?

Oso edizio polita izan da. Jauzi kualitatiboa eta kuantitatiboa egin dugu. Alde batetik, pelikula gehiago eskaini ditugu, eta gainera oso film garrantzitsuak egon dira. Eta bestetik, jende askok jarraitu ditu pelikulak, batez ere azken egunetan. Gure asmoa da azken edizio hau ongi finkatzea, eta hortik aurrera urratsak ematea, apurka- apurka.

Nola ikusten duzu Euskal Herrian egiten den zinema? Zerbait mugitzen ari dela uste duzu?

Film luzeen munduan ez dago gauza asko. Baina uste dut oso harrobi inportantea dagoela film laburren munduan, eta oso etorkizun polita izango duela.

Erakundeen diru laguntzak nahikoak dira?

Beno, ni alde horretatik pozik nago. Diru laguntza eskatu eta eman didate. Ni gustura nago, Eusko Jaurlaritzak emandako diruarekin posible izan dudalako pelikula egitea.

Zer da zailagoa kritika gustura uztea ala publikoa asetzea?

Biak asetzea egokiena litzateke. Baina ongi pentsatuta, kritikoak gutxi batzuk dira, eta publikoa jende gehiago da. Publikoaren iritzia niretzat inportanteagoa da. Bestalde, kritikoaren iritzia ere inportantea da, baina nire pelikulen kasuan kritikoak ez daudela prestatuta uste dut. Espainiako kritikak oro har proposamen berriak ez ditu ongi hartzen. Nire pelikula Berlangak egiten badu, kritika ona egingo diote. Baina nik egiten badut Berlangaren pelikula bat, esango dute hasberri baten pelikula patetikoa dela.

Zeintzuk dira film bat egiteko erabiltzen dituzun inspirazio iturriak?

Nire azken pelikulan bakardadeari buruzko

hausnarketa egiten dut. Oso pertsonaia bakartiak dira, laguntasuna eta amodioa bilatzen dute. Baina nire inspirazio iturri nagusia zinema da, Berlanga, esperpentoa, Jose Luis Cuerda, AEBetako zinema independentea, eta pop kultura.

Etorkizunari begira proiekturen bat buruan?

Bai, hainbat ideia ditut. Pelikula estreinatu eta gero zerbait idazten hasiko naiz. Atsedean bat hartuko dut aurrena, eta 2008an bigarren film luzea grabatzen hasten da nire asmoa.

IBILBIDEA

Film laburrak:

- 100 maneras de hacer pollo al txilindron (1997)
- Looking for Chencho (2002)
- Cuando puedas (2003)

Film luzeak:

- El síndrome de Svensson (2006)



kepa sojo eta filmeko taldea
gasteizko falerina lorategian

iker Ipz de vicuña, mataukotik katmandura bizikletaz:

“Indiak beti erakarri

Iker Lopez de Vicuña 26 urteko gaztea da. Bizikletarekin ibiltzen da alde batetik bestera eta Matauko herritik Gasteiza ere halaxe etortzen da egunero-egunero lanera. Txirringak asko eman diola dio eta arrazoi guztien artean bereziena iaz garai hauetan amaitutako abentura, urtebetez bere herritik, Mataukotik alegia, Katmanduraino bizikletaz heltzeko aukera izatea.

[maite lekue]

[arg.: edorta sanz & iker Ipz de vicuña]

Urtebete iraun duen bidaiaren nondik norakoak ezagutzeko Ikerrekin geratu gara eta izan behar zuen bezala bere bidaiakide izan den bizikletarekin azaldu zaigu beste behin.

Nolakoa izan zen etxetik irten eta Katmandurainoko bidaia hasi zenuen egun hura?

Hasieran bertigo pixka bat sumatu nuen. Ez nuen lehenago bizikletaz bidaiarik egin, nahiz eta ez zen bakardadean egiten nuen lehenengo bidaia. Irteera nahiko arraroa izan zen, gurasoei egun horretan irtengo nintzela esan nien eta urduri samar jarri ziren; euri apurra egiten zuen baina abiatzea erabaki nuen memento hura gehiegi ez luzatzeko. Lehenengo etapak lasai hartu nituen, lagunak ditut Altsasun, Iruñean, Zaragozan, LLeidan..., beraz, azpiegitura pixka bat banuen, eta nire erritmoa ikusten joan nintzen, bizikletara egiten, antolaketa nola egingo nuen ikusten eta poliki-poliki aurrera joatea besterik ez nuela konturatu nintzen.

Zer dela eta Katmanduraino joatearen ideia buruan?

Liburu bat irakurri nuen aspaldi madrildar batek Alcarriatik Katmandurainoko bidea bizikletaz egiten zuela kontatzen zuena. Indiak beti erakarri nau era berezian, Yoga apur bat ere praktikatzen dut eta Himalaia mendiak ere hor daude, asko liluratzen nauten mendiak izanik. Bidaiari honek oso ondo deskribatzen zuen bidaia, eta ezinezkoa

ez zela ikusita animatu egin nintzen.

Zein izan da egindako ibilbidea?

Penintsulatik ateratzerakoan Frantziako kostaldea zeharkatu nuen, Italiako mediterranearen kostaldetik ibili eta Grezia iparralderaino eraman ninduen itsasontzia hartu nuen. Bertan Tindo mendikatea zeharkatu, Meteora, Egeoko kostatik pasa, Olinpotik, Tesalonikatik igaroz Turkiaraino iritsi nintzen. Istanbul, Anatolia, Ankara, Capadocia gurutzatu ondoren ekialdera jo nuen, Kurdistanera hain zuzen. Bertatik iparralde aldera joan nintzen, Iranera hain zuzen, Teheranera heldu arte. Iranen arazoak izan nituen sabelarekin eta erabaki behar izan nuen bidaia jarraitu ala bertan behera uztea. Azkenean jarraitzea erabaki nuen eta autobusak hartzeari ekin nion, Teherandik Pakistanera bitarteko bidea egin nuelarik. Ondoren, Pakistan zeharkatu nuen Cuetaraino. Han bizikleta hartu nuen itzeleko gogoarekin eta Baluchistaneko mendiak zeharkatu nituen. Indo haranetik Indiara heldu nintzen. Halere, Iranen basamorturik gurutzatzerik izan ez nuenez, Indiako Rajasthan desertutik ibili nintzen. Ganges ibaiaren ertzetik Nepaleko mugaraino, Lubinitik, Pokhara aldean trekking apurra egiten, Annapurna mendietatik, eta azkenik, Katmandura iritsi nintzen.

Nolakoa izan zen Katmandurako sarrera?

Mila aldiz baino gehiagotan imajinatu nuen une hura eta arraroa eta hunkigarria izan zen aldi berean. Arraroa gehienbat Katmanduraino heltzeko bailara bat



nau era berezian"



gurutzatu behar izan nuelako, non Nepalek bizi duen egoera politikoarengatik poliziaren kontrolak zeuden nonahi eta jendeak arazo itzelak zituen pasa ahal izateko. Haien aurrean ni nire irribarrearekin, bidaia helmugan...; egoera hau bizitzerakoan nahiko arraroa sentitu nuen nire burua.

Nola hartu zaitu jendeak bidaia osoan zehar?

Denetarik izan da. Batzuek kuriositatez itauntzen zidaten ea Europatik haraino nolabait iristerik bazegoen. Besteek aldiz, nire gobernuak babesten ninduen ala ez galdetzen zidaten serio eta nik erabat txundiduta ezetz, ideiarik ere ez zutela ni handik nenbilela. Bakarrik joatean ni ez nintzen arrisku bat eta jendea horrela, nahiko eskuzabal agertu zait orokorrean. Bidaian zehar laguntza eskaini didate beti, fruituak emanez, edariak eskainiz, eta baita lurrin pota bat luzatu ere, usain ona izan nezan bizikletatik jaistean. Haien etxera joan nedin esan zidaten askok eta India eta Pakistan inguruan ezkontza batzuetara joateko gonbitea ere jaso nuen behin baino gehiagotan.

Nola antolatzen zenituen egunak?

la urtebete iragan dut bidaiatzen eta horrexegatik lau urtaroak bizi izan ditut denbora honetan. Adibidez udara partean goiz argitzen du egunak eta eguerdi partean aldiz bero itzela izaten da. Garai honetan oso goiz esnatzen nintzen eta bizikletaz lehen orduak ematen nituen. Ondoren jana non erosi, non lo egin eta halakoak prestatzen nituen. Zoriona da denbora asko nuela

niretzat, diru aldetik, aldiz, estu samar, baina bidaia prestatzeko denbora soberan nuen. Honek edonon pausatzeko, gustuko nuen parajeaz goatzeko edo egun batzuk lekuren baten gelditzeko aukera eskaintzen zidan. Cuetan, adibidez, 10 egun eman nituen eta Indian, berriz, hilabete geratu nintzen Dharamsalan.

Zer moduz bizikletarekin, arazo tekniko asko izan al dituzu?

Ez askorik, ez uste. Gupil zulaketak baino ez zaizkit suertatu. Zortea izan nuen nire arrebaren lagun batek, Richarrek hain zuzen, bizikleta konpontzeko ikastaro azkar bat eman zidalako, ordu arte nik ez bainuen mekanikaz ideiarik ere.

Zer moduz bizikleta bidaiaikide izanik?

Oso gustura. Bizikletak askatasuna eskaintzen du. Batzuetan hala ere kontrakoa gertatzen da, bizikletarekin hainbat tokitara heldu ezin zarelako. Bizikletak asko ematen du, askatasuna eta jendearengana hurreratzeko aukera, besteak beste.

Zein helburu finkatu zenituen abentura honen plana egin zenuen garaian?

Mundua ezagutzea zen nire helburua. Katmandura heltzea bainoago bidaia bera gauzatzea zen nire helburuetako bat. Nire burua hobeto ezagutzea ere izan da xedea, ez nekielako noraino helduko nintzen, zein erabaki hartuko nituen memento zehatz batean; eta nire jakinmina asetzea. Leku berriak eta jendea ezagutzea ere izan ziren hasieran planteatu nituen xede batzuk.

✓ Iker Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa da eta Arkauteko empresa batean egiten du lan. Zortea izan zuela dio karrerako proiektua amaitu eta hilabetera lana aurkitu baitzuen.

✓ Ikasketak amaitu ostean Txile eta Peru inguruan izandu zen karrerako proiektua gauzatzen.

✓ 2004ko ekainean hasi zen bere bidaia abenturan eta 2005eko maiatzean bueltatu zen etxera

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



**XABIER
AIZPEOLEA**

HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

El Clarete

JATETXEA



UNAI ETA PATXI FERNANDEZ DE RETANA
ZERKABARREN KALEA, 18

01008 GASTEIZ

945 263 874

IRYSTA TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

LA RIOJANA
jatetxea

on egin!

bokatak,

pintxoak,

kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14

(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

ARTEPAN
Artisau



Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37

01005 GASTEIZ

**EYSKAL LABELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

Gasteizko

haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24

Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

**Confecciones
Pinedo**
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ

Tfnoa.: 945 23 39 90

Heldu da eguzkia...



Eguzkitarako edozein betaurreko
erosten duzula ere, Mendia Optikak

erloju zoragarri hau

OPARITUKO DIZU

Eta orain eguzkitako

betaurreko graduatuak 65€etatik

CHANEL PRADA Ray-Ban arnette Silhouette

Calvin Klein FENDI VOGUE Pepe Jeans bonardi

Promozio hau 06/05/01etik 06/08/31ra egongo da indarrean, edo erlojuak bukatu arte.

**150 URTE
BETE DITUGU
1856-2006**
ikus dezazun

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

MUSIKHERRIA

HERRI DISKETXEA

Aire freskoa gaur egungo musikaren egoerari

Herritik sortua, herrirako egin den proiektu berritzailea dakar Musikherria diskoetxeak. Herria eta musika uztartuz jaio berri den eragile soziala izan nahi duen egitasmoa. Musikaren egoera inoiz baino makurrago dagoen garai hauetan Musikherria-k, ohiko diskoetxeen ereduak balio izan ez duela ikusirik, alternatiba bat plazaratu nahi du.



[josune velez de mendizabal]

[arg.: musikherria]

Orain arte musikak ezagutu ez duen kontzeptu aldaketa, alternatiboa eta autogestioan oinarriturikoa, besteren artean, proposatzen du herri diskoetxe honek. Musikaren iraultza ekar dezakeena? Musika panoramara aire freskoa dakarrena behintzat bada, baita aurrerantzean fruituak eman dezakeena ere. Momentuz webguneaz, cd bilduma bikoitzaz eta aldizkariak lagunduta plazaratu da.

Sorkuntzaren hedapena du helburu Musikherriak eta dagoeneko lehenengo lanak kaleratu ditu, cd bilduma bikoitza, alegia. Bertan 38 talderen kanta bana entzun daiteke, estilo desberdinetako erritmoak batuz. Talde batzuek ibilbide luzeagoa daukate besteek baino, baina denek bat egiten dute filosofian: ekimenak bultzatzea ohiko kontsumitzeko ereduetatik kanpo.



Eztabaidarako gunea izatea ere bilatzen du herri diskoetxe honek. Orain arte horrelakorik egon ez den heinean, aurrekaria izateak dakarren oztopoekin ere topa daiteke. Horregatik musika panoramaren egoera aztertzea proposatzen du, ideia berriak, kolaborazioak eta elkarlana bultzatuz. "Hasiberriak gara eta gauza asko ikasi behar dugu proiektu honekin -jasotzen du webguneak-. Lehenik eta behin, egon diren esperientziak ezagutu behar ditugu eta horretarako jende desberdinarekin, diskoetxeak, taldeak, banatzaile alternatiboekin..., biltzeko bideak jarriko ditugu.

Eztabaida publikoa piztu nahi du Musikherriak eta, horren harira, bide batetik edo bestetik eman daitezkeen arazo edo zalantzetan hausnartzea, hala nola, musikaren profesionalizazioa, merkantilizazioa, musika aldarrikapenerako tresna, identifikapenerako tresna izatea, sormena, egungo egoera, krisia, bilakaera eta abar bezalako gaiak jorratu, aztertu eta ondorioztatu nahi ditu.

>>> Honako kontzeptuen aldaketa proposatzen du herri diskoetxeak

MUSIKA

Musikaz bizitzea
VS.
Musikaz gozatzea

Musika dirua ateratzeko erabiltzea
VS.
Musika gozatzeko, ondo pasatzeko eta gizartean eragiteko erabiltzea

Musika elitista izatea
VS.
Musika herritarra eta eskuragarria izatea

Musikaren eskubide pribatizazioa: Copyright
VS.
Musika kolektiboa eta komunitarioa: Copyleft eta anticopyright

Musikari profesionalak
VS.
Musikari profesional herritarrak

Musika doktrinatzeko
VS.
Musika egoera kritikatzeko, kontzientzia hartzeko, zalantzak sortzeko...

DISKOETXEA

Diskoetxearekin harremanak edukitzea lanak ateratzeko
VS.
Diskoetxe herritarraren parte izatea eta parte-hartze aktiboa edukitzea

Diskoetxeak eramatea zure lanaren parte bat, banaketa, promozioa... eta dirua
VS.
Proiektuari aportazio xumeak egitea eta bakoitzak eramatea berea

TALDEA

Bere proiektu musikala egitea
VS.
Bere proiektu musikala egiteaz aparte, proiektu kolektibo eta "zabalago" batean sartzea

Bere gauzez arduratzea
VS.
Ikuspegi zabal batetik proiektu batean parte hartzea

Moral bikoitza izatea (nik gaztetatik pirateatu dut, baina orain zuk ez pirateatu nirea)
VS.
Garai berriak eta gazteen poltsikoen egoera aintzat hartzea (merezi duela uste baduzu eta dirua baduzu, ordaindu, baina dirurik ez baduzu kopiatu eta segi musikaz gozatzen)

EUSKARRIAK

Diskoetxeak eta industriak ezartzen dituzten formatuak erabiltzea
VS.
Diskoetxeak eskaintzea eta entzuleak aukeratzea (CD, ogg, mp3, Internet...)



KONTZEPTUEN ALDAKETA: COPYLEFT

Irudimena eta ausardia darabiltza Musikherriak nagusiki, hauek ezinbestekoak baitira kontzeptuen aldaketa sakonean eragiteko orduan. Eta horrela dio herri diskoetxe honek: "Teorian eta praktikan, gaur egun ezagutzen ditugun hainbat kontzeptu berrasmatu eta birpentsatu behar ditugu: kultur jabegoa, merkataritza, managerrak, harremanak, kontzertuak, sorkuntza, zabalpena, profesionalizazioa... Urteetarako bidea da, poliki-poliki egingo duguna".

Copyleft da agian kontzeptuen artean deigarriena. Hauxe da jabego intelektualaren inguruan Musikherriak egiten duen irakurketa: "gaur egun dauden prezioek eta kontsumitzeko ereduak ez gaituzte erakartzen. Kultura merkantzia bihurtzen dute askotan. Jabego intelektualak kudeatzen duten elkarte eta eragile desberdinak (SGAE, SESAN eta beste batzuk) kulturaren lapurreta egiten ari dira gutxi batzuen poltsikoetara dirua eramateko. Guk copyleft eta anticopyright-en aldeko apustua egiten dugu. Bakoitzak ikus dezala, baina copyright-a ez dugu erabiliko. Gure kultur sorkuntza libre eta irekia izango da".

izaera / definizioa

- ✓ Musikara mugatuko den proiektua.
- ✓ Euskal Herriko proiektua.
- ✓ Euskalduna: Euskal kultura eta bereziki euskal musika bultzatuko du.
- ✓ Emakumeen papera musika munduan bultzatuko da.
- ✓ Musika estilo desberdinak bultzatuko ditu.
- ✓ Copyleft-aren aldeko apustua egiten du.
- ✓ Autogestionatutako proiektua eta autogestioaren aldekoa.
- ✓ Musika taldeak, proiektuan, subjektu aktibo dira.
- ✓ Ez da enpresa bat, eragile sozial bat baizik, herri eta gazte mugimenduaren beste eragile bat.
- ✓ Musika munduko beste eragileekin erlazio zuzena izango du.

diskoetxearen helburu nagusiak

- ✓ Musika egiteko eta ekoizteko bitartekoak mahai gainean jartzea.
- ✓ Musika mota guztien zabalpena eta ekoizpena egitea.
- ✓ Musikaren balore soziala indartzea.
- ✓ Laguntza kolektiboa indartzea.
- ✓ Musikari alternatiboen kolektiboa indartzea.
- ✓ Euskarazko musika indartzea.
- ✓ Euskal herrian egindako musika alternatiboa indartzea.
- ✓ Ekoizpen alternatibo eta komunitarioak bultzatzea.
- ✓ Herri guztiari lotuta dauden ekimenak bultzatzea.
- ✓ Errekurtsoak komunean jarriaz, lana erraztea.
- ✓ Diskoetxea ez da egongo taldeen gainetik. Helburua da erakustea taldeei nola atera ahal den aurrera era autogestionatuaz.
- ✓ Musika mugimenduan eragitea.
- ✓ Herri/gazte mugimenduko parte izanda, bertan era aktiboan eragitea.



musikherria / taldeak

all jazz era; lukas prest!; oil kobras; anger; dubet; oliba gorriak; mendeku itxua; eigen system; f.d.l.n; mix6t; sarkor; more; ufestuek; itaka; gatazka oil; gaitz; akatu; zulo; tunnel 483; konter; txakurrak; punkamine; nun; arkada; r13; jauko barik; banda batxoki; harrika; dirties; sysmo; kasu; lur jota; legez kanpo; ozen; javi; zartako; kloratita; euri ttantak.



etorkizunerako helburu nagusiak

Hauek dira Musikherriak hurrengo urteetan eragiteko lehentasunezko eremuak eta gaiak:

- 1) Musikaren balio soziala: musikaren espazioen berrindarpena, berreskurapena eta dibertsifikazioa. Kalea eta gaztetxeak musika egiteko leku nagusi bezala.
- 2) Parte-hartze kolektibo eta parekidea: emakumeen parte-hartzea.
- 3) Kultur jabego pribatua: copyright-a kuestionatu > copyleft / anti-copyright.

Musikherriak egoitza birtuala du. Informazio gehiago eskuratzeko, planteatzen dituzten berrikuntzetan sakontzeko, harremanetarako, hausnarketarako, eztabaidarako eta eredu berri hau hobe ezagutzeko: www.musikherria.org



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

ARABA EUSKARAZ 2006

EUSKARA barruan daramagu!

Urtero legeztatu eta udaren atarian, Araba Euskaraz jaiaren edizio berria egingo da. Aurten Gasteizko Armentia Ikastolari egokitu zaio antolakuntza. Hitzordua, datorren ekainaren 18an, Armentia herrian eta basoan, hain zuzen.

[saioa fdz. de arangiz]

[arg.: edorta sanz]

'Barruan daramagu'. Hauxe dugu 2006. urteko Araba Euskaraz-en leloa. Asier Astigarragak, Armentia Ikastolako zuzendaria eta jaiaren antolatzaileak esan bezala, leloaren hitz joko honekin hainbat gauza azaldu nahi izan dituzte. "Alde batetik, barruan euskara eta euskal kultura daramatzagula. Baina baita arabarrak garelako ere euskaldunak garela eta gure hizkuntza aspalditik barruan daramagula ere. Arabarrak garelako gara, hain zuzen ere, euskaldunak", diosku Asierrek.

Bestetik, honekin batera doan motiboa marraskiloa da, gure herriarekin eta ohiturekin erraz lotu daitekeen marrazkia, alegia.

Horrela, datorren ekainaren 18an, igandearekin, Armentia herria izango da ospakizunaren eszenatoki.

Gune nagusia eta ibilbidearen hasiera, esaterako, Armentia basilikaren inguruak izango dira

eta zirkuitua basoraino luzatuko da. Honen sarreran gaztetxoentzako ekintzen gunea kokatuko da, baita gazte-gunea ere. Beraz, adin eta gustu guztientzako ekintza anitz izango dira. Besteak beste, Berri Txarrak, Kokein, Pin Pan Pun edo Tapia eta Leturia taldeen kontzertuak, graffiteroak, bertsolariak, folklore dantzak, kale animazioa, txalaparta emanaldi eta tailerra eta malabare ikuskizuna. Haurrentzat, aldiz, umeen txokoa, ludoteka, pailazoak edo herri kirolak, adibidez. Hauek guztiek eta gehiagok osatzen dute egun horretako programazioa, izan ere, aurten berritasunak ere egongo baitira. Aipagarriena ekainaren 18an bertan egingo den tonbola dugu: aspaldiko tonbolen modura boletoak salduko dira (euro 1) eta denek izango dute saria; guztira, 7.000 sari inguru banatuko dira egunean.

HELBURUA, IKASTOLAREN ESPAZIO

ARAZOARI AURRE EGITEA

Armentia Ikastolako zuzendaria esan bezala, hainbat dira lortu nahi dituzten helburuak. "Dirubideak lortu nahi ditugu Ikastolaren egoitzan egin beharreko lanak ordaintzeko eta gaur egun dugun espazio arazoari nolabaiteko irteera emateko. Tamalez, gure Ikastolaren egoitza aspaldiakoa da eta gaur egunean eskatzen zaizkigun baldintzak jarri eta neurriak betetzeko aldian-aldian inbertsio gogorrak egin behar izan ditugu. Handitzen gabilta eta dena beharrean gaude", azaldu du.

Hori dela eta, gogor ekin diote iazko Araba Euskaraz antolatu zuen ikastolaren lekukoa hartu zuten momentutik. "Lekuko hartze hau ez da sinbolikoa bakarrik, orduantxe hasten baitira lehenengo antolakuntzak", dio. Horrela, besteak beste, hasiera batean aurkezpen saio orokorrekin eta dendako produktuen bitartez (kamisetak, forroak, izerditakoa, eta abar...) herririk herri mugitu



angel olalde, aurtengo koordinatzailea

dute aurtengo Araba Euskaraz eguneko iragarpena. Azken hil honetan, berriz, erritmoa "bizkortu" dela aitortzen du Asierrek, Araba Euskaraz-ek babesturiko ekintza bereziak eratu baitira. Esaterako, ardo-dastatzea, entzunaldi musikalak, antzerki lanak edo diaporama. Horrez gain, eta hil honetan egingo den ibilbidearen aurrerapen gisa, maiatzean herri krossa eta bizikleta martxa familiarra ospatu zituzten.

Antolakuntza, beraz, ez da lan makala eta horretarako jada 40 lagun inguruk egiten dute lan batzordean, Armentia Ikastolakoak zein kanpokoak. "Egunotan asko ugaritu zaizkigu taldeak eta bestetik, 18an ehundaka lagun mobilizatuko ditugu, Ikastolakoak, Arabakoak zein Euskal Herriko beste lurraldeetakoak ere", azaldu du Asierrek.

OMENDU BEREZIAK: LEHEN PROMOZIOA, ESTHER ARAMENDI ETA JOSE ANTONIO GLZ SALAZAR

2006ko Araba Euskaraz honetan bi eratako omenaldiak bildu dira. "Batetik, badugu omenerako eta poztasunerako etxe-barruko gaia: lehenengoz irtengo

zaizkigu ikastolatik gurean eskolaturiko lehen gaztetxoak eta horregatik lehen promozio honek izango du oroimenerako tartea", zehaztu du Asierrek. Beste alde batetik ere, Araban euskararen alde lan gogorra egin duten bi pertsonaia ekarri nahi dituzte gogora. Lehenik eta behin, Esther Aramendi, 70. hamarkadan Arabako lehen ikastoletan ume txikiei euskaraz hasi zitzaizkien andereñoen ordezkari gisa. Bestetik, Jose Antonio Gonzalez Salazar etnografo eta toponimia-ikerlaria, Arabako kulturaren ikerketari herri ikuspegitik egin dion aportazio ikaragarria omendu nahian.

Gauzak horrela, Araba Euskaraz berezia eta zoragarria izango da aurtengoa. "Denontzat egun gogoangarria izatea nahi dugu. Egun baketsua eta gaztetxoentzat osasuntsua izatea nahiko genuke. Gure gazte-jendeak badaki onean ondo eta alaitasun giroan garbi eta zintzo jokatzeko. Hori nahi genuke ikusi eguneko ekintza eta gune guztietan", dio Asierrek. Baina nola ez, ahalik eta jende gehien batzea nahi du antolakuntzak, bere esanetan, "arrazoiak eta aukerak baduelako merezimendu nahikoa"•

materiala



✓ 'barruan daramagu'. hauxe dugu 2006. urteko araba euskaraz-en leloa

✓ "arabarrak garelako gara, hain zuzen ere, euskaldunak"


✓ marraskiloa gure herriarekin eta ohiturekin erraz lotu daitekeen marraskia da

✓ abestia eta egitaraua: www.araba-euskaraz.net

OSCAR G, ileapaintzailea:

"Oscar G-n lan egiten duten pertsonak

Bere etxean bertan hasi zen bere bezeroen ilea apaintzen. Baina ez hori bakarrik, baita estilo propioa eratzen ere. 1990. urtean bere lehenengo apaindegia ireki zituen Gasteizen eta jada, beste sei lokal eta hainbat frankizia ireki dituzte, denak Oscar G markapean. Urte askotako lana beste behin saritua izan da, gaurkoan mundu osoko apaindegien bikaintasun enpresariala saritzen duen 'Global Bussiness Award' irabazi baitu.



[saioa fdz. de arangiz]

[arg.: edorta sanz & oscar g]

Oscar G apaindegien enpresa arabarraren lana saritua izan da berriro ere, zehazki, enpresa arloan egiten duen lan bikaina. Horrela, datorren ekainaren 6an 'Global Business Award' saria jasoko du Bartzelonan. Nazioarteko prentsa ordezkariak zein UCLako Anderson Administrazio Eskolako Price Zentroko irakasleak osatu dute epaimahaia, eta apaindegien izaera lehiatsua, talde lana, marketinga eta promozioak, eta finantza-emankortasuna dira epaileek irabazleak aukeratzean kontuan hartu dituzten irizpideak.

Izan ere, 1990. urtean Oscar G-k Konstituzio plazan bere lehenengo lokala zabaldu zuenetik, enpresaren hazkuntza izugarria izan da. "Ileapaindegia baina zer

edo zer gehiago gara, egitura tradizionalatik at gaude eta izaera propioa eratu dugula uste dut", diosku Oscarrek. Abangoardiako dekorazioa, bezeroenganako arreta ezin hobia, estilo propioa eta bere kolaboratzaile-taldea dira, bere hitzetan, arrakastaren gakoak. Arrakasta honen eraginez beste apaindegi berriak irekitzea erabaki zuen. Horrela, 1995. eta 1996. urteetan beste bi lokal zabaldu zituen Gasteizen. Enpresa handitzearekin batera, barne antolaketa ere aldatu zen eta hainbat sail derberdin jaio ziren: Sormenezkoa, Finantzetakoa, Komunikazioa eta Eskola.

Denboraren poderioz, Bilbo, Logroño eta Gorteia Merkatalgunean ere finkatu da Oscar G, eta hemendik gutxira beste lokal bat zabalduko dute Basaurin. Horrez gain, 2003 urtetik aurrera Oscar G-k frankizia-sistema jarri zuen abian eta jadanik, bi dira sistema honen pean hirian zabaldu diren apaindegiak.

Honekin batera, 2000 urtean L'Oréal Professionnel markarekin batera hasi zen

elkarlanean. "Honi esker, produktu onenekin lan egiteaz gain, Europa mailako eszenatoki garrantzitsuetan egoteko aukera dugu eta honen laguntzari esker ere eskuratu ahal izan dugu sari hau", azaldu du Oscarrek.

OSCAR G, ILEAPAINNTZAILEA

Nola jaso duzu sari honen berria? Espero zenuen?

2006. urteko albistirik onena izan da eta OscarG osatzen duten pertsona guztien lana eta esfortzua saritzen du. Norabide egokian gabiltzala sentitzea motibazio handia da guretzat. Egia esan, momentu egokian heldu da saria, hazkunde garaian gaude eta sari hau berme ona da gure kolaboratzaile, kide, bezero eta hornitzaileentzat.

Zein da zure lana eta apaindegien filosofia?

Moda bilatzen dugu gure bezeroentzat, berrikuntza azken finean. Denboraldi bakoitzean modan egongo denari buruz informatuta egotea gustatzen zaigu,

✓ "prestakuntza metodoak izango dira sektore honetan benetako iraultza ekarriko dutenak"

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

**Euskadik
behar zaitu**



dira batez ere arrakastaren formula"

edozein adinetako gure bezeroei punta-puntako gauzak eskaini ahal izatea. Gure helburuak lortzeko gogor lan egiten dugu eta gure filosofia berdina duten pertsonekin lan egitea dugu gustuko. Bestalde, gure lantaldeen sormena suspertzeko eta gure bezeroak informatuta mantentzeko asmoz, urtero lau bilduma sortzen ditugu, Udaberri-uda, Udazkena-negua, gizonentzako berrikuntzak eta emaztegaientzako bilduma, alegia.

Beti bezala hastapenak zailak izaten dira. Zure kasuan, etxean bertan hasi zinen lan egiten eta orain gauzak asko aldatu dira. Nola izan zen hasiera eta nola baloratzen dituzu pasa diren urte hauek?

Beti oso aberasgarriak izan dira, batez ere hastapenetan, giza-harremanak direla eta. Garai hartan nire familia eta lagunen aldetik izugarritzko laguntza jaso nuen. Bestetik, urte hauetan ere ikastaldia bestelako arloetara zabaldu zait, enpresa-eremura, esaterako. Hala ere, beti pertsonak kontuan hartuz.

Zein da arrakastaren formula?

Batez ere, Oscar G-n lan egiten duten pertsonak. Hau da, arduratsua eta profesionala izatea, beste pertsonenganako errespetua eta tolerantzia izatea eta ikasteko bide bezala

apaltasunez jokatzeta. Horrez gain, garapen pertsonal eta profesionalari aurre egiteko jarrera ona eta gogoia izatea, gure lanean berritzaileak izatea eta azkenik, eguneroko lanean pasioa jartzea. Hauek izango lirateke nire ustez arrakastaren gakoak.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira zuen asmoak?

Egun, gure apaindegiak bestelako hirietan zehar zabaltzea izango litzateke gure egitasmo nagusia. Horretarako,

Oscar G-n dirua sartu nahi duten inbertitzaileekin harremanetan jartzea da gure helburua, baita arrakastatsu suertatzen den negozioa martxan jarri nahi duten pertsonekin ere. Horrez gain, kalitate handiko prestakuntza bultzatzen dugu eta horregaitik maila altuko metodo profesionala garatzeko lanean ari gara une honetan. Gure aburuz, prestakuntza metodoak izango dira sektore honetan benetako iraultza ekarriko dutenak.




bitxiak / zilarra / osagarriak

*Prezio ezin hobeak!
Originaltasuna!*

serafin ajuria 13-behea | gasteiz 01008 | 945222130



cd-liburuskak biziago sentitzeak dakarren muga inguruan...



mugaldekoak | 2006-maiatza | 2 euro

Ian honek azken bi urteotako bidea erakutsi nahi du, aldaketa zenbait eta eboluzio handia egon baita bitartean. esaterako, hasieran hiru lagun ziren taldean, eta orain, aldi, lau dira. halaber, hainbat testu eta kantu berri sortu dituzte orain arte; beraz, proiektuak bizi-bizirik dirauen frogarik behinena dugu honako hau. horrela, 2004ko liburu ezagunaren segidatzat har daiteke, formatu musikatu(ago)an, nahiago bada: cd-liburuskak ekarriko dituen kantuak eta testu gehienak argitaragabeak dira. esan bezala, talde lanaren ondorio emankorra. musikari dagokienez, arestian aipaturiko pop-rock, folk eta country ahaireak atzemanen ditu ikus-entzuleak kantu eta kantu-poemetan barna; gitara elektriko eta akustiko, harmonika eta, gure inguruan hain ohikoa ez den zerra musikalez apainduriko piezak. egitasmoak edu zelaietaren bigarren poema liburua du abiapuntu, mugaldekoak, susa argitaletxeak 2004an argitaratua. gaur egun hauek dira mugaldekoak:

edu zelaia: testuak, gidoia eta irakurketak

beñardo goietxe: ahotsa, gitara elektriko eta gitara akustikoa

raul garcia etxeberria: gitara akustikoa, zerra musikala, harmonika eta ahotsa

jordi serra: itzulpenak eta irakurketak

liburua garmendia eta fannyren sekretua



(garmendia 3) | kirmen uribe / marrazkiak: mikel valverde | 10 euro | adina: +10 urte | 2006-maiatza

garmendia pistolari famatuak badu lagun mexikar bat, amelio, eta badu ezkutuko maite bat, fanny. behin fanny desagertu egin zen, eta gutun bat bidali zuen, italian zegoela jakinaraziz. garmendiaren senak bere maite kutuna arriskuan zegoela aditzera eman zion, eta, bitan pentsatu gabe, italiara abiatu zen amelioarekin. abentura, intriga, umorea, idazketaren finezia... horiek guztiak dira kirmen uriberen narrazio honetan lehen kolpetik sumatzen diren ezaugarriak.

zinea rosario tijeras



kolonia-espainia-frantzia-mexiko-brasil / iraupena: 126' / urtea: 2006 / zuz.: emilio maille / akt.: flora martinez, unax ugalde, manolo cardona

kolonia, 80ko hamarkada. medellingo cartel-ak hiria hiltzaile habia bilakatu du. rosario maitasun, sexu eta mendeku triangulu bateko protagonista izango da. anaia, mutil-laguna eta lagun bat izango ditu ondoan.



SEKULAKO OPARIA

[txabi arnal gil]



Pozgarria da, benetan, Carl Norac poetaren izena eta Émile Jadoul idazle eta irudigilearena elkarrekin ikustea. Atseгина helduentzako idazle bat haurren mundura hurbiltzea. Ezinbestekoa literaturari adinik ez ematea. Carl Norac-ek egin du. Irudi-album bat osatu du. Hala eta guztiz ere, ez du bere burua arriskuan ipini ez baita hain ongi menperatzen duen poesiatik aldendu eta, gainera, nork eta Émile Jadoul-ek lagundu dio.

Sekulako Oparia idazteko Norac-ek bere poesia argalarazi du. Apaindurak baztertu ditu testu zuzen eta garbi bat lortzeko asmoz. Eta lortu du. Eta ez hori bakarrik, baita ere eman dio haur txikientzako liburuek behar duten gozotasuna.

Gozoa. Hauxe dugu liburu hau definitzeko adjektibo aproposena. Gozoak dira, oso, hitzak. Irudiak bezain gozoak. Margo pastekek eta marra garbiek lagunduta, irudi ederrak eskaintzen dizkigu Jadoul-ek, *Todo el mundo va* eta *¡Que llega el lobo!* tituluena bezain ederrak. Adierazgarriak, benetan.

Eta ipuinaz, zer? Aita oso kezkatuta dago. Luisentzat urtebetetzeko oparia erostea ahaztu egin zaio. Luisek Julenena baino hartz handiago bat nahi du. Aita korrika batean merkatal gunera abiatu da, baina hango pelutxezko hartzak txikiegiak dira eta ez daukate benetakoen antzik. Aitak, orduan, bi pote ezti erosi eta ondoko baso batera joan da...

Sekulako Oparia. Izakiak eta gauzak berdin hartzen ditugula erakusten digun ipuin erraz eta eder bat•

Sekulako Oparia. Carl Norac-Émile Jadoul. Itzulpena: Nekane Umerez. Ibaizabal, 2004.

euskal literaturaren altxorak bizkaiko foru aldundiaren liburutegi digitalean

bizkaiko foru liburutegiaren literatur ondarearen zati handi bat interneten eskuragarri, horixe da aldundiaren liburutegi digitalak eskaintzen duena. XV eta XVIII. mendeen artean sortutako literaturaren bilduma garrantzitsua topa dezakegu bertan, tartean euskaraz sortutako 27 idazlan.



europako parlamentua: orain euskaraz baietz

2006ko apirilaren bukaeran ezezkoa izan zena baieztatu bihurtuko da antza hilabete beranduago eta, azkenean, europako parlamentuarekin idatziz behintzat euskaraz, galegoz, katalanez zein valentzieraz harremanetan jartzeko aukera izango dute herritarrek.



euskalbar: 7 hiztegi klik bakar batean

sarea arakatzeko firefox erabiltzen dutenek 7 euskal hiztegiaren bilaketak aldi berean egiteko aukera daukate. nahikoa da aurkitu nahi dugun hitza behin idaztea, ondoren, klik bana eginez, zazpi hiztegiaren aurkitu ahal izateko.

euskalbar tresna-barra 2006 honen hasieran plazaratu zen tresna-barra dugu. firefox sare-arakatzailerekin espreski sortutakoa da, gainera, software librearen eremu gero eta aberats eta zabalagoan buru-belarri ari direnen eskutik. juanan pereira izan zen tresna-barra berriaren sortzailea, eta internetekin, telekomunikazioekin eta teknologia berrieekin lotutako gaiak jorratzen dituen internet & euskadi elkartearen webgunean eskura daiteke.

lehen bertsioa plazaratu zenetik aste asko igaro ez badira ere, dagoeneko zenbait eguneratze izan ditu euskalbar-ek. azkena eta osatuena, noski, 1.4 bertsioa da, eta honen sortzailea asier sarasua garmendia izan da.

telefonoa euskaraz mintzo dadin

kontseiluak, 'telefonoa euskaraz' lelopean, euskara sustatzeko aurtengo norbanakoen lehen konpromisoa aurkeztu du. urtero hiru konpromiso zabaltzen ditu kontseiluak, iaz, besteak beste, errenta aitortpena euskaraz egiteko deia, lagun edo senide bat euskara ikastera animatzea edo euskarazko produktuak lehenesteko deia egin zituen.

horren bidez, euskararen gizarte erakundeen kontseiluak herritar guztiei eskatu die euskararekiko konpromisoa har dezatela, hau da, sakelako, etxeko, zein laneko telefonoa euskaratu dezatela. kontseiluak 5.000 txartel banatu ditu herritarren artean, telefonoa euskaraz jartzera animatuz. "txartela jasotzen duen pertsonak, bere telefonoa euskaratzeaz gain, beste pertsona bati pasatu beharko dio, horrela konpromisoa zabalduz". txartel bakoitza lau lagunentzako eskutara heltzea da kanpainaren xedea, 20.000 telefono euskaratu arte. horretaz gain, sakelakoa ere mezua hedatzeko tresna bezala erabili dutela azaldu dute kontseiluko ordezkariak: 'tlf euskaz, gztion konpromisoa! psazaz mezua!' bezalako sms-ak bidali dituzte aste honetan zehar.



67.000 bisita baino gehiago erabili.com-en


amaitu berri den 2006ko martxoak orain arteko marka guztiak txiki utzi ditu erabili.com-en: otsailean 44.361 bisita izatetik, martxoan 67.674 izatera pasatu gara.

>inoizko jauzirik handiena

joan den 2006ko otsailaren hasieran urtarrian izandako gorakada nabarmenaren berri eman bagenuen, bi hilabete beranduago are nabarmenagoa den beste igoera baten berri ematera gatoz.

urte hasieran aurrekoaren bukaerarekin alderatuta hilabete batetik bestera 9.000 bisita gehiago izan genituen, normalean hilabete batetik besterako igoerak beti 1.000 irakurleen inguruan ibili izan direnean. baina otsailetik martxora izandako jauzia askoz handiagoa izan da. martxoan otsailean baino 23.313 bisita gehiago izan ditu erabili.com-ek, abendutik urtarrierara izandakoa ia hirukoiztu.

hilabete batetik besterako igoera handi hori gure webguneak inoiz ezagutu duen handiena da, koska nabarmenarekin gainera, orain dela bi hilabetez gaindituz, hain zuzen.



2. piropo lehiaketaren piropo irabazlea

(www.aisia.net)

urtxintxa eta ttakun elkarteek gazteekin egoera informetan euskarazko erregistro kolokiala sustatzeko egin zuten proposamen berria da lehiaketa hori. aurtien 744 piropo jaso dira guztira eta horien artean 14 aukeratu ziren finalerako.

>botazioa bukatu ondoren hau izan da piropo irabazlea:

ordulariaren orratz txikia izan nahi nuke orduero zurekin egoteko

(jokin ayerregaray huet)

>finalistak hauek izan ziren.:

-paula celaya muru (iruñea): bi aldiz maite zaitut, eta ez da poto!

-nerea ezeiza arregi (donostia): zure bihotzaren taupada da nire bizitzaren musika

-beñat sarasua bueno (donostia): ogi opiltzua baino gozoagoa zera.

-garazi urrosolo urdinlaiz (donostia): loreak mendian eta zu nire bihotzean

-maider prieto vila (errenteria): zu ilgora, ni ilbehera eta biok batera ilargi bete

-izaskun naberen mardaras (algorta): zure ezpain gozoei zerbait falta zaie, nireak ote?

-helen perez berciano (donostia): zu zara aldaketa klimatikoaren arrazoia.

-lorea alberdi izeta (zestoa): zu zara nire puzzleko zatirik handiena

-iñigo palomo (errenteria): marrubi-marrubi zu zara nire janari

-gorka ruiz merino (iruñea): zu bazina sagarra eta ni banintz harra jango nuke baita... zuztarra

-eneritz salzeda (arrasate): zu kafe eta ni esne, biak batera kafesne

-juan carlos gonzalez rodriguez (donostia): lehenengo bistako maitasunean sinesten al duzu ala berriro pasa behar dut?

-arantxa mujika morera (donostia): txupatzusa izan nahiko nuke zure ezpainen artean egoteko.



ATOMOOG MUSIKA TALDEA:

"Jendearen erantzuna ona izaten ari da eta gu pozik gaude"

Atomoog talde gasteiztarrek bere lehen diskoa kaleratu berri du. Gaztelupeko Hotsak zigilupean dator musika elektronikoa oinarri duen 'Zerutik eskegita' lana.

[josune veleaz de mendizabal]

[arg.: edorta sanz]

Iker Ormazabal (makinak eta gitarra), Katty Arenzana (ahots nagusia), Iker Rodriguez (makinak, bateria eta ahotsak) aritzen dira musikan, Beñat Fontanedak proiektaturiko irudiek eszenatokia girotzen eta janzten duten bitartean. Talde berritzailea ezagutzeko hurrengo aukerak, euren zuzenetara gerturatzea da, honakoak: ekainaren 8an, Gasteizko Man in the moon tabernan, edota ekainaren 16an Hendaian, besteren artean.

Zuen taldeak 8 urteko ibilbidea egin, eta ingelesez abesten hasi bazineten ere egun euskaraz kaleratu duzue zuen lehen lana. Zergatik?

Hasieran, eta seguruenik, gustuko dauzkagun talde guztiak, erreferentziak, alegia, kanpokoak direlako, ingelesez abesten hasi

ginen. Hala ere, hastapenetara joz gero, esan beharra dugu hasieran ni bakarka aritzen nintzela (Iker Rodriguez) eta geroxeago Katty hasi zela kolaborazioak egiten baina, nahiz eta ingelesez izan, ahots ambientalak besterik ez ziren bertan entzuten zirenak. Oso hitz gutxitako abestiak ziren; horietatik bat berreskuratu eta diskoan gehitu nahi izan dugu, 'Your suffering' izenekoa. Ondoren, ahotsa presentzia gehiago hartzen hasi zenean euskaraz abesten hasi ginen, besteak beste eta nagusiki, hirurok erosoago aritzen ginelako euskaraz egiten.

Eta alderik nabaritu duzue taldeak egin duen garapenean, entzuleengan edota zuengan, zuen hastapenetan ingeleza erabiltzetik egun euskaraz abestera?

Egia esateko ez..., zerbait aipatzearren, akaso errazagoa izan zaigu hizkuntzari esker Gaztelupekoekin diskoa ateratzea, baina horretaz gain aipatzen dituzun esparru

horietan aldaketarik ez dugu sumatu.

Euskal Herrian musika elektronikoa abian egon badago, baina ez da agian gehien entzuten den musika mota. Zer iritzi duzue? Berritzaileak suertatu al zarete musika munduan?

Dj-en asuntuekin urteak daramatzagu dagoeneko..., musika elektronikoa, house estiloa..., baina guk bestelako musika elektronikoa egiten dugu, horiekin zerikusia ez daukana. Gu bezalako taldeak egon, egongo dira, adibidez THC aipa genezake, baina oro har elkarren berri ez dugu. Beharbada talde hauek lokaletan aritzen direlako nagusiki; begiratu gu, horrela ibili gara orain arte, zortzi urte lokalean gure musika egiten.

Eta azkenean lokaletik atera eta diskoarekin ezagutzera eman duzue zuen lana...

Ez geneukan asmo berezirik diskoetxe batekin diskoa kaleratzeko. Gure gogoak zen eginiko lan hau guztia grabatua izatea eta play sakatuz entzun ahal izateko aukera izatea. Bi urte daramatzazunean zerbait egiten gogoak daukazu bukatzeko. Orduan behin grabatuta gurea esan genuen, eta orain zer?, eta Gaztelupeko Hotsak-era bidaltzea erabaki genuen. Batez ere, estilo desberdinetako taldeak dituelako erabaki genuen hara bidaltzea, eta ondo atera zen.

Diskoetxe bakarrera bidalita eta diskoa kalean?

Bai sinesgaitza da baina horrela suertatu





zen, ia miraria da (barre egiten dute). Ez genuen asmorik diskoetxe guztiekin harremanetan jartzeko eta. Hortaz, horrengatik apustu egin eta atera zen (barreak).

Taldea sortu zenutenetik diskoa kaleratu orduko denbora luzea pasa da. Zergatik hainbeste itxarotea?

Horrela suertatu da. Batetik, Atomoogen ibilbidea ez da jarraia izan, hau da, norberak gure egitasmo propioei ere aurre egin diegu eta, ondorioz, taldea geldirik egon da zenbait garaitan. Sei hilabete jo gabe egon eta gero entseiuak egin behar dira eta abar, poliki-poliki joan gara, gauzak ondo eginez eta saiaturaz. Hortaz, disko bat kaleratzeko hainbeste denbora ez da beharrezkoa, noski, baina gure kasuan beharrezkoa izan da. Gauzak poliki egin ditugu, presa barik.

Atomoog-ek musika eta irudiak uztartzen ditu. Zein da arrazoa?

(Beñat Fontaneda) Batez ere honetan hasi nintzen egiten zuten musika piloa gustatzen zitzaidalako. Lokalean aritzen nintzen kamararekin eta behin bideo bat grabatu nien.

Gustatu zitzaigun. Argazkiak

ere ateratzen hasi eta webgunea egitea erabaki nuen..., horrela hasi zen dena.

Musika elektronikoa abiapuntutzat hartuta eta teknologian izandako garapenari begiratuta, eraginik izan du aurrerapen honek zuen musika egiteko moduan?

Bai noski, duela 8 urte geneuzkan ordenagailuekin disko hau grabatzea ezinezkoa izango zen. Teknologia guztion eskura egoteari esker grabatu ahal izan dugu patxadaz eta denboraz gure lokalean disko hau, bestela estudio batean egiteak dirutza lekarke-eta. Dauzkagun ordenagailuak, hala ere, onak dira, garestiak ere, baina inbertsio bat da.

Zuzenekoetan ari zarete orain,

Atomoog ezagutarazten. Nolako erantzuna jaso duzue orain artean?

Jendearen erantzuna ona izaten ari da eta gu pozik gaude. Normala denez, jende guxti dator gure kontzertuetara eta esaten digute horrelakorik ez dutela sekulan ikusi. Soinua ere zenbat eta gehiago jo, gero eta hobeto ateratzen da. Gainera sekulako soinu teknikaria dugu, Dani Lopez de Pariza. Diskoaren ekoizpenari eta nahasketari dagokien ere, Aitor Amozarainek musutruk egin duen lana ezinbestekoa izan dela nabarmendu nahi dugu•

atomoog izena nondik

"britaniar 'coldcut' taldeak 1992. urtean ateratako diskoan 'atomic moog 2000' singlea atera zen. robert moog izan zen lehena sintetizatzaileak merkaturatzen. izen hori hartu eta bai coldcut bai moog-en omenean atomoog atera zen. fonetikoki polita generitza, eta gainera badauzka nolabait gu definitzen gaituzten zenbait elementu. nahiko arraroa dirudi lehenengoz entzutean, hala ere, komentatu digute behin baino gehiagotan oso polita iruditu zaiela izena".

<http://atomoog.blogspot.com/>

basamortuan barrena

[www.pictures.traveladventures.org]



atacama. txile. hego amerika



marib. yemen. asia



sandwich harbour. namibia. afrika



sesriem dunak. namibia. afrika



wadi rum. jordania. asia



atlas. sahara. kostalde atlantiko. afrika



atlas garaia. maroko. afrika



namib.
namibia.
afrika

egipto. afrika

ERREZETA

ARKUME HANKA ERREAK BIZKAITAR SALTSA APUR BATEKIN

[diocesanaz-mendizorrotzako ostalaritza eskola]

> Lau laguntzako OSAGAIK:

Arkume hankak	12
Baratzuri atalak zuritu gabe	4
Erramua	1
Piperbeltz aleak	3
Itsas gatza	koilara txiki erdia

Apaintzeko:

Taloak egiteko patatak	100g.
Oliba olio	2 koilarakada handi
Gatza & piperbeltz hautsa	apur bat

Bizkaitar saltsa:

Tipula, zerrenda luze lodietan	100 g.
Urdaia	15 g.
Urdaiazpiko ondua	15 g.
Perrexil hostoak	1
Oliba olio	4 koilarakada handi
Maria galletak	1
Tomate saltsa	koilarakada handi bat
Kaiena piperbeltza	apur bat
Itsas gatza	koilara txiki laurdena
Haragi edo hegazti salda	2 dl.
Piper txorizeroak	1

PRESTAKUNTZA

• Hanketako ileak eta lohiak kendu, gatz larria bota uretara eta ur ugariarekin garbitu, ur freskotan eragin eta presioko eltzean egosi; gatza, erramua, piperbeltza eta baratzuriak bota eta urez estali; irakiten hasten denean aparra kendu, eltzea itxi, eta gutxi gorabehera 15 minutuz egosi (hanken tamainaren arabera). Egosi ondoren, lehenbailehen eltzetik atera epeldu daitezen, eta hezurak kendu (ahal bada osorik), baina kontuz, erre gabe. Plater batean sakabanatuta ipini.

• Hoztutakoan, irineztatu, arrautzetan pasatu eta ondo berotutako oliotan frijitu. Apur bat gorritu ondoren, paper xurgatzailearekin xurgatu.

SALTSA:

• Kazola batean olio jarri, kuboetan ebakitako urdai zatiak gorritu eta alboratu; tipula gehitu eta minutu batzuetan potxatu. Ondoren, gainerako osagaiak gehitu: urdaiazpiko ondu xehatua, tomate, piper txorizeroa (aurrez ur berotan beratua), maria galleta, kaiena piperbeltza eta gatza. Saldarekin busti eta 15 minutuz poliki-poliki egosi; lehenengo, puregailutik pasatu eta ondoren txanotik; irakin, behar adina gatz bota eta sutatik kendu. Berotan eduki.

PATATA TALOAK:


• Patatak zuritu, garbitu, lehortu eta mandolinarekin xerra mehetan moztu; ondoren, bata bestearen gainean ezarri, 10 cm-ko talo luzexka bat osatu arte. Lau talo egin. Koipeztatutako zartagin bero batean taloak bi aldetatik gorritu. Kontuz eman buelta itxura gal ez dezaten, gozatu, eta plater batean ipini.

Amaiera:

• Platerean lehenengo bizkaitar saltsa apur bat ipini; ondoren, arkume hankak, eta hanken gainean patata taloa. Berehala zerbitzatu.



[cristina fernandez blanco]



ARABAKO EUSKAL MUGARIK BAZEN, HIL DA

[erlantz urtasun]

Kaixo, irakurle. Oraingo honetan, eta aurrekoaren moduan, ez dizuet gure arbasoen berri eman nahi. Edo ez hori bakarrik, alajaina. Gakoa da, berriz ere, kokoteraino nagoela, zer arraio. Badakizue, lehenagoko "gure euskara eder maitea, ari zaigu hondatzen..." bertsoaren parean nahiago izaiten baitut "gure ordua heldu da txo!, euskalduna naiz eta harro nago!".

Kontua da 406. urtean, duela 1600 urte alegia, ehundaka mila "barbaro" k Rhin ibaia zeharkatu eta, orduko Galietan hamaika triskantza egin ondoren, 409 aldean egungo Arabatik igaro zirela, Burgos partean zen euskal muga ere giblean uzteko. Balizko Erdi Aroaren hasiera dugu pasarte hura, eta mila urte berantago, Kolonen garaian, bere horretan aurkituko da gure kulturaren lurraldea, jauntto erdalzale eta kristau jerarkia gaiztoaren elkarlanari esker bere ahulezia, muga edota barnealdean, ikaragarria izan arren.

Horregatik, eta agintari, irakasle, apaizek ezarri ziguten euskararen aurkako "eratzuna" ri loturik, duela berrehun urte

Arabako hegoaldea erdalduna zen, Lauaxeta olerkaria faxistek fusilatu zuten 1937an gure Araba euskaldunak Gipuzkoa eta Bizkaiko mugetan bakarrik ezkutatzeko.

2006an, baina, eta noizbait Arabako euskal mugarik bazen, muga hori hil egin da. Hiru urteko umeen aurrematrikulazioa aztertuz gero, Arabako herri, eskualde guzi-guzietan, ipar nahiz hegoa, mendebalde zein ekialdean, euskaraz hazi eta heziko diren haurrak badirelaket. Era masiboan arabar iparraldean, sinestezinezko garaipen handian Gasteiz hiriburu kolonizatuan, eta mendetako jauzi magikoan Burgos edota Errioxako mugetan.

Nori esker? Arabako bihotz abertzaleari esker. Euskara bortxaz lapurtu baziguten ere, euskal sena gorde genuelaket, etorkinak ere erakartzeko maitasunaz jantzirik. Eta berriz ere, 2007an ospatuko dugunez, Euskal Herriaren aldeko Gebarako gazteluaz jabetzeko. Hor ene gogoa.



"ARABAKO HERRI IZENAK ALDATU DIRA HISTORIAN ZEHAR?" (V)

Aurrekoan Gasteiz, arabar hiriburuko izenaz aritu ginen, jasoriko Pedro gasteiztarren galdera tarte. Oraingoan, baina, eta bide beretik, bistan da, lehenagokoari segitu nahi diogu, e-mailaz jasoriko makina bat eskaera medio, hain zuzen ere Arabako herri izenak ea historian zehar aldatu ote diren erantzuten jarraitzeko.

Ba, bai, jakina. Hor dugu Gasteiz bera, edota duela bi hilabete aipatu genuen hamaika "Markina" tipi lekuko, Bizkaikoaren ahizpak direnak, alegia.

Nola ahanzi "Miñano Mayor", ofizialki desagerrarazi zuten autobideko trafiko seinale elebidun horiek lekuko, duela mila urte "Menganogoyen" idatzi zutela? Ai ene, "-goyen" hori grekera, suomiera, arabiera, ingelesa ote?

"Narvaja" herri tipia "Narbaiza" zen 1025 edo 1071an, eta "Arvaxa" 1294an. "Navarete" izenak ere haridura sorrarazten digu, 1642an "Nabarretexo" zelaket. Zenbat toki tipi maite, eta zenbat aldaketa, noren zerbitzurako lehen, orain eta hemen? Hor ikasgaia, irakurle, gogoeta zure eskuetan, halere, hurrengo hilabetea arte...

[?] txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera duzue. bidali hona zure galdera: geugaste@gm.es



KUTXITRIL ATENEOA

Okupazioa bizirik Gasteizko Alde Zaharrean

Aiztogile kaleko 99 zenbakiak bizia hartu du berriro ere. Okindegia izan ostean, urte andana zerman ateak itxita eta Hemen eta Munduan elkartekoek esparru aske bat lortzeko otsailean okupatu zuten lokal hau. Bertan egiten dena ikusi nahi izatekotan, Kutxitril Ateneoko ateak zabal-zabalik daude. Geu Hemen eta Munduan elkarteko Koldo Sagasti eta Roberto Sanchez kideekin egon da.

[maite lekue]

[arg.: edorta sanz]

Zer da Kutxitril Ateneoa?

KOLDO– Abandonatuta zegoen esparru bat okupatu, berreskuratu eta askatu egin dugu erabilera bat emateko asmoz. Esparru hau, bai auzokoentzat bai gizarte eragileentzat erabilera bat emateko zabalik dago.

Zerk eraman zaituzte lokal hau okupatzera?

ROBERTO– Lehenengo eta behin, Hemen eta Munduan elkartekoek biltzeko lokalik ez geneukala eta bestetik, gogoia geneukan beste esparru bat sortzeko, ez soilik gure ekimenak aurrera ateratzeko, baizik eta edonork nahi dituen proposamenak aurrera ateratzeko gune bat sortzea.

KOLDO– Hemen eta Munduan taldea osatzen dugunok hein handi batean auzoko biztanleak gara. Kezkatuta gaude ikusten dugulako Udalak ezarritako egitasmoa globalizatzailea dela. Gu antiglobalistak garen aldetik, erakundeak eragile globalizatzaileak direla ikusten dugu eta auzoan garatzen ari den

proiektua ere globalizatzailea dela uste dugu. Bestalde, auzotarrak garen aldetik urduri gaude egitasmo edo plan honekin, bertan bizi garenon iritzia inolaz ere kontuan hartu barik eta asmo turistiko, espekulatibo eta enpresaburuen mesederako aurrera eraman nahi dutelako. Askotan jartzen duten aitzakia Alde Zaharra berritzeko diru piloa sartzen dutela da, baina sartzen duten diru hori guztia harriak txukuntzeko erabiltzen dute, harrien bestaldean bizi dena kontuan izan gabe.

Noren jabegoan dago lokala?

KOLDO– Zaila da esatea, Santa Maria Fundazioaren proiektu eta planetan euren izango balitz bezala agertzen baita, hala ere, legalki, lokalaren egoera nahiko iluna da, ezin baita ziurtatu fundazioarena den ala ez. Nolanahi ere, gu saiatu gara jabegoaren erregistroan lokala norena den jakiten, baina han ukatu egin digute publikoa den informazio hori.

ROBERTO– Santa Maria Fundazioaren planetan dago, baina guk sumatzen dugu legalki oraindik fundazioarena ez dela.

KOLDO– Itxuraz eraikin hau guztia

fundazioarena da. Gu hona, eta ondoko okupak etxetara (Aiztogile 103) bizitzera sartu ostean, goiko etxeak goitik behera suntsitu zituzten okupa gehiago sar daitezkeen ekiditeko. Bertan familia bat ere bizi da, desjabetzeari uko egin diona. Hondatu dituzten etxe asko fundazioarenak dira, baina haienak ez diren hainbat etxe ere suntsitu dituzte.

Nola suertatu zen okupazioaren eguna?

Nola zegoen lokala?

KOLDO– Inauterietan egun argitan eraman genuen aurrera okupazioa. Atea irekitzen saiatu ginen eta zaila zenez kristala apurtu eta barrura. Lokala berez egoera kaxkarrean zegoen, zikin eta hondakinez bete. Honek kontraesana dakar fundazioak esaten duenarekin, izan ere, lokala egoera onean zegoela eta erabiltzen zutela esaten baitute. Txukuntze lan ugari egin ditugu lokala hobetze aldera.

Udalak Alde Zaharrean Berritze plana aurrera atera nahi duen bitartean, zuek alde zaharreko auzokideak izanik zer duzue honen aurrean esateko?

KOLDO– Udalak ez du kontuan hartu

auzotarron iritzia. Hainbat plataforma, auzo-elkarte zein elkarte, auzoan lan egiten dutenak, haien iritzia ematen ari dira, baita plan honen inguruko auzotarron iritzia biltzen ere, eta ez diete inolako kasurik egin. Hortaz, gure bizkarrera egiten ari den egitasmoa da, helburuak argiak dira; eskailera mekanikoak, kasu, xede turistikoekin egiten ari dira.

Kutxiril Ateneotik oso gertu okupatutako beste etxe bat dago (Aitzogile 103). Gasteizko Gaztetxeak ere 18 urte bete ditu aurten. Okupazioa al da alternatiba?

KOLDO- Guk okupazioa tresna bezala erabili dugu, ez helburu bezala. Egoera eta proiektu desberdinak dira, zilegiak guztiak.

ROBERTO- Bitxia da esan digutelako aitzindariak garena honetan, lokala okupatu dugulako bertan bizitzeko asmorik gabe, ekimenak gauzatzeko baizik.

Zein erabilpen emango zaio lokal autogestionatu honi? Zein ekimen planteatzen dituzue hemendik aurrera?

KOLDO- Esparru hau auzoko hainbat eragile zein talderi eskaintzen diegu haien ekimenak aurrera atera ahal izateko. Orain arte biltzeko erabili dugu, Hemen eta Munduan osatzen dugunok zein auzoko beste talde batzuek ere. Hilabete behin alde zaharreko azokarekin batera, festak egin izan ditugu, lokaleko ateak auzokoei irekitzeko, bai eta aldarrikapenak egiteko ere. Hainbat talde lokala erabiltzen ari dira, esaterako, dantza talde bat, perkusio senegaldarreko eskola, eta abar. Aurrera begira, esparru zabal bat sortu nahi dugu, gerturatzen den jende ororentzat.



koldo sagasti okupaturiko lokalean

Nola hartu dute auzokideek lokalari eman diozuen bizia?

KOLDO- Inguruan bizi diren auzokoei ondo hartu dute, baita larunbatetan antolatutako jaietan parte hartu ere. Auzo elkartearekin harreman estua daukagu eta okupatu osteko prentsaurrekoan gurekin batera izan ziren. AZAO plataformaren barruan gaudenez ere Alde Zaharreko talde desberdinekin harreman ona mantentzen dugu.

ROBERTO- Gure aurka erabili duten aitzakia bat guk auzoan alarma sortu dugula da, eta guk ez dugu inondik inora hori nabaritu.

KOLDO- Fundazioak leporatu diguna, bai ondoko okupe bai guri, izan da auzoa ghetto bihurtu nahi dugula... Horren harira, Alde zaharra oso auzo anitza da, jatorri desberdinetako jendea dago, kolore anitzetakoak, hizkuntza anitzetakoak... Alde horretatik auzo aberatsa da, bai eta gizarte mugimenduen arloan dagoen biziagatik ere.

Apirilaren 1ean auzokideen eta gasteiztarren aurrean agerraldi festa bat egin zenuten. Nolako izan zen egun hura?

Bai apirilaren 1ean zein maiatzaren 6an eginiko agerraldietan harrera oso polita izan

zen. Inguruko jende askok parte hartu zuen, musika izan zen eta auzoko jendeari jatorrizko herrialdeetako janari tipikoak prestatu eta eskaini zitzaizkion. Eskertzekoa da egunero lokalean ibili ez baina egun horietan antolakuntzan inplikatu zen jendearen parte-hartzea.

Zenbait komunikabide ekimen honi emandako tratamendua nahiko okerra izan dela aipatu izan duzue...

KOLDO- Bai. Hainbat komunikabideren jokaera salagarria da benetan. Ez dute kontuan hartu auzotarrak garena eta hain gazteak ere ez garena. Lokalaren jabetzaren kontua nahiko ezkutua da eta gezurti jokatu dute. Guztietan gogorrena, Santa Maria Fundaziokoek adierazpen iraingarriak egin dituztela auzo elkarte presidenteari gainean.

✓ maiatzean 'jardunaldi prekarioak' antolatu zituzten

✓ "bitxia da esan digutelako aitzindariak garena honetan, lokala okupatu dugulako bertan bizitzeko asmorik gabe, ekimenak gauzatzeko baizik"



Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldia
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldian plaza
GASTEIZ

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

VERONICA DIAZ DE ANTOÑANA

"Herriak bakea eta lasaitasunez bizitzea eskatzen du"

23 urteko gasteiztarra dugu Veronica, neska alaia eta bizia, gauzak ondo egitea gustatzen zaion horietakoa. Euskara Kanpezuko Ibernalo ikastolan ikasi zuen. Orain bere ametsa betetzen dihardu, medikuntza ikastea, alegia; jada 5. mailan dago eta lehen zikloa Leioan euskaraz egin bazuen ere, orain Gasteizko Txagorritxun ez dauka euskaraz ikasterik.

[estitxu breñas glz de zarate]

[arg.: edorta sanz]

Duzun biziorik handiena? Kirola egitea.

Bertuterik? Eskuzabala naizela, beti laguntzen ahalegintzen naiz.

Akatsik? Urduritasuna eta gauzez gehiegi arduratzea.

Zer eskatzen diozu bizitzari? Ahalik eta zoriontsuen bizitzea eta proposatutako gauzak lortzea.

Zerk ateratzen zaizu zure onetik? Pertsona itxiek eta askok daramaten alferkeria.

Geu aldizkariaren berririk? Noiztik? Ez nuen ezagutzen elkarriketarako

proposamena egin zidaten arte. Hemendik aurrera pentsatuko dut harpideduna izatea.

Egunkari bat? Etxean irakurtzen dena, el Correo.

Telebista saio bat? Ez dut telebista ia ikusten, nahigo dut irratia entzutea. Denbora dudanean Etb-ko arratsaldeko 'Pásalo' saioari arreta jartzen diot.

Beldurrik? Nire senideek gaixotasunak pairatzea eta haien oinazea nahiz mina.

Oporrak non eta zertarako? Herri txikietan bertako ohiturak ezagutzeko, egunero daramaten bizimodua dendarik izan gabe... Aparte, betidanik Europako iparraldeko herriak bisitatu nahi izan ditut.

Nora ez zinateke joango? Turista piloa dauden lekuetara eta horrez gain, gatazka zein arazo asko dituzten herrialdeetara (Iran, Palestina, Afrikako hegoaldea...)

Eguna ala gaua? Eguna, dudarik gabe. **Gasteizko gaua non?** Alde zaharreko edozein tabernatan lagunekin zerbait hartzen.

Liburu bat? 'Ensayo sobre la ceguera', Jose Saramagorena.

Film bat, zergatik? Ez dut zinema gustuko. Ez naiz gogoratzen noiz ikusi nuen azken filma, baina betiko



gogoratuko dudana: 'El pianista', kontatzen den istorioagatik, egiakoa baitzen...

Edari bat? Ura.

Janari bat? Edozein arrain mota.

Kolore bat? Laranja.

Musika gustukoa? Maná.

Kirol bat? Edozein, baina aukeratzekotan, bizikleta.

Zer da Gasteizek duen onena?

Txikia dela eta leku guztietara ibiltzen irits daitekeela eta, noski, bere parkeak.

Txarrena? Momentu honetan dauden obrak!! Gasteiz osoa hankaz gora dago!!!

Euskaraz bizi ahal daiteke Gasteizen?

Baietz uste dut, eta horretarako euskaldunok egin behar dugu lana.

Amets bat? Hemendik gutxira nire lanbideaz gozatzea.

Amesgaizto bat? Nire inguruko mina, eta hemendik gutxira ekaineko azterketak, ja-ja-ja.

Iragana, eguna ala etorkizuna? Eguna, "carpe diem".

Zer eskatzen du herriak? Bakea eta lasaitasunez bizitzea•

✓ paseoak ematea, gimnasioan kirola egitea eta osasunari buruzko aldizkariak irakurtzea du gustuko. astean zehar, goizez ikasi eta arratsaldean kirola egin eta ikasten jarraitzen du; asteburuetan kanpezura joan ohi da, paseoez, familiarekin eta lagunarekin gozatzera.

✓ anekdotatxoak. "fisikoki antz handia dut amarekin, beraz, askok ahizpak garen galdetzen digute, horregatik nire amarekin nahastea askotan gertatzen zait. kanpezuko atso asko edozein gauza kontatzen hasten dira eta nik jarraitzen diet, eta onena da galdetzen didatenean: 'eta zure alaba, zelan doa ikasketekin...???' eta nik erantzuten diet: 'ondo, pixkanaka', kontutan izanda nik seme-alabarik ez dudala!!!!"

✓ "mundu guztiak esaten dit burua oso ondo egituratuta dudala, ez dakit guztiz egia den baina!"



"ZE ZIGOITI NAHI DUGU,

MAIRULEGORRETA KOBAZULOAREN INGURUKO AUZIA

Zalantza da Mairulegorreta kobazuloaren inguruan agertzen den itzal nagusia deskribatzen duen hitza. Orain arte izandakoa eta etorkizunean bilaka daitekeenaz ere mesfidantza agertu dute Zigoitiko bizilagunek. Zigoitiko Udalak ez die argibiderik eman Mairulegorretako ingurunea paraje turistikoa bilakatzeko abian jarri duen egitasmoaren aurrean. Bizilagunak, mendizaleak, espeleologoak, ekologistak, nekazariak eta ehiztariak kezkatuta daude, eta Udalaren azalpenen zain diren artean 'Gorbeia bizirik' lelopeko plataforma osatzea erabaki dute.

[josune veleaz de mendizabal]

[arg.: edorta sanz & kirikio elkarteak]

Bertako Kirikio elkarteak, urtero irailaren hasieran izaten den 'Zigoitia Euskaraz' ekitaldiaz mintzatzeko aurtengo urtarrilean Zigoitiko Udalarekin egindako bileran jakin zuen egitasmo honen inguruan lehenengoz. "Zein izan zen gure sorpresa esan zigutenean Mairu kobazuloa itxita egongo zela obregatik", azaldu du Kirikiok. Auditorio bat egingo zutela bertan aipatu zuten eta, era berean, kobazuloa oso zikin zegoela eta garbituko zuteneko aitzakia erabili zuten".

Harrituta geratu ziren Kirikio elkartekoak hori dena entzun eta gero. Inolako informaziorik ez zuten jaso eta ematen zuenagatik egitasmoa nahiko aurreratua zegoen. "Ez digute inolako informaziorik eman orain artean eta Udalarik bilera eskatu diogu ea zerbait argitzen digun", nabarmendu dute. "Gure ustetan ezkutuan egin nahi izan duten egitasmoa da hau. BOTOAN martxoaren 31n Mairulegorreta kobazuloen egokitzapenerako ideien lehiaketa kaleratu zen, 10 eguneko epearekin -azaldu dute-. Nork aurkeztu dezake horrelako egitasmo potoloaren inguruko txostena 10 eguneko epean? Hala ere, bi enpresa aurkeztu dira. Baina Udalak inprimaki guztiak gaztelera hutsean kaleratu zituenek, guk errekurtsioa jarri eta orain lehiaketa atzera bota dute, epea luzatuko dutelakoan uztaila bitartera, antza".

Begi-bistan denez, gauzak ez daude argi auzi honetan. Interes ezkutua egongo diren beldur dira Zigoitiko biztanleak, susmo txarra hartzen diote zoritxar honi. "Ustiaketa turistikoa badakigu zeri lotuta doan, eta nahiz eta mementoz ezer zehatzik ez diguten ziurtatu, kobazuloetara igoko den txu-txu tren horietakoa jarriko duten beldur gara, auditorioaren kontu hori barrualdean... eta



Informazio gehiagorako eta harremanetarako: mairubizirik@yahoo.es

ZE MAIRU NAHI DUGU?"

Informazio eske Zigoitiko biztanleek eta Gorbeia Bizirik plataformak honako 10 galdera hauek egiten dizkiote Udalari:

MAIRU? 10 galdera honen harira

- 1-Zein izango da benetako Gorbeiak ordaindu beharreko kostua proiektu honengatik?
- 2-Zein izango da ordainketa ekologikoa kobazulorainoko sarbidea egiteko?
- 3-Aurreikusita dago turismoan igoera bat geroago zerbitzu turistikoak ere igotzeko?
- 4-Egon dira harremanak jadanik enpresaren batekin, ideia lehiaketa alde batera uztita?
- 5-Kobazuloaren baldintza geologiko zein ekologikoak hobetuko al dira benetan?
- 6-Lehentasunei buruz: ez da ikastola egin gabe utzi arrazoi ekonomikoengatik?
- 7-Nork aterako du etekina proiektu beretik eta bere ondorengo esplotazioagatik?
- 8-Kontsultasu zaio Patronatoari, ideia lehiaketa hasi baino lehen?
- 9-Zertarako nahi dugu Zigoitiko biztanleok horrelako eredu turistiko bat?
- 10-Zergatik ez zaigu galdetzen...

ze Zigoiti nahi dugu?
ze Mairu nahi dugu?

Mairulegorretaren defentsarako herri kolektiboa

gero zer etorriko da?... masifikazioa, burger horietako bat, parkinga, pista?... -kezkaturik agertzen da Kirikio elkarteak. Ados garbitu behar deneko idearekin, baina ez aitzakia horrekin proiektu turistikoa gauzatzearena; gainera, masifikazio horrek seguruenik kuxidade gehiago lekarkeela".

'GORBEIA BIZIRIK' PLATAFORMA

Gorbeia ingurua haserre agertu da ideia honekin eta horrela adierazten du bizilagunek, nekazariak, ehiztariak, espeleologoak eta mendizaleak sortu duten plataformaren logoak. Ezjakintasunak sortzen duen ezinegonaren bidetik tentuz ari da jokatzeko 'Gorbeia bizirik' osatu berri den plataforma. "Jendearengan sorturiko kezkak plataforma bat sortzera behartu gintuen. Egun 50 lagun inguru biltzen gara ostiralero Gopegiko Bengolarra kiroldegian

20:30ean; Arabatik ezezik, Bizkaiko mendizaleen elkarteetatik ere etorri dira bilera hauetara", aipatu du Kirikiok.

Egitasmoaren nondik norakoak ezagutu artean ez dute liskarrik sortu nahi, baina ezin besoak gurutzaturik egon. Ingurunearen bakea eta naturarekin apurtuko duen zerbait badatorrela jakiteko ez da orain arte gauzak nola joan diren baino askoz ere gehiago bilatu behar. "Orain arte bilerak egin ditugu argibideak bilatu nahian. Bestetik, kamisetak ere egin ditugu 'Gorbeia ezta ikutu ere. ¡No se toca!' lelopean. Hauek oso ondo saldu dira eta oraindik eskuragarri dira - aurreratzen dute-. Bandelarak ere kaleratu ditugu gure desadostasuna adierazteko. Eta egin dugun azken ekintza, argitalpen baten bitartez Zigoitiko bizilagunei egitasmo honen berri ematea izan da, bertan Zigoitiko Udalari zuzendutako gutun irekia agertzen delarik"•



judimendiko jaiak. 30 urte (1975-2006)

Bizirik dirauen sua

[koldo camon erostarbe]

[arg.: judimendiko jai batzordea]

Prudentzio Deuna, Zeledon, Olarizurako erromeria eta... Judimendiko Jaiak, nola ez bada! Aurrekoa ez da bakarrik gure auzokideon iritzia, harrotasuna adierazteko modukoa, Gasteiztar guztion ahoan egoten den leloa baizik, benetan hasieratik jai herrikoa bihurtzea lortu dutelako urtetan zehar antolakuntzan buru-belarri ibili diren ehunaka judimenditarrek. Ezer baino lehenago eta izenik aipatu gabe guztiei merezitako esker ona aitor diezaiegun.

Judimendiko Jaien historian bi garai desberdinu beharko genituzke, 1975. urtea mugarría izanik.

Auzoko zaharrenek kontatzen dutenez, guda zibilaren osteko urterik gogorrenak pasatu ondoren, 1950 hamarkadaren hasieran, auzoko bizilagunok hasi ziren San Juan gaua ospatzen Judimendiko parkean. Zergatik? Bada parkean zegoen Preventorioaren barruan santu horri sagaratutako kapera txiki bat zegoelako. Lehenengo urte hauetan parkean bertan pizten zuten sua ekainaren 23an zuhaitzetako adarrak eta zahagi zaharrak erabiliz. Horrekin batera herri askaria gozatzen zuten ardo onez lagundurik. Biharamunean ajearen aurkako txokolate eta txurroak ziren nagusi festan jarraitu ahal izateko.

1956. urtean lehenengo jai egitaraua zabala antolatu zen, idatzizko euskarriak erabiliz baita mota askotako ekintzak antolatuz ere: dianak eta kalejira, sua, hiru dantzaldi (bata antzinako Judimendiko igerilekuetan gonbidapenez baliatuz; bigarrena Olagibel kalean; eta hirugarrena auzoan zehar kamioi batean igota), meza, txikientzako askaria eta jolasak, motoentzako ginkama,... Hurrengo urteetan horrelakoak antolatu ez baziren ere, auzotarrok inoiz ez zioten ekainaren 23ko sua pizteari uko egin.

1975. urtean lehenengo jai ofizialak izan genituen. Horiek garaiak, horiek! Jende guztia ilusioz eta konpromisoz beterik, parte hartzeko prest, itogarria izan zen diktadurari agur esateko irrikan. Hiruzpalau su erraldoi pizten ziren gaur egungo Sefarad Plazan, milaka lagun ez inguratuta oskorria agertu arte. Inolako laguntza ofizialik



gabe, bizilagun eta dendarien eskuzabaltasunari esker, oztopo guztien gainetik ezinezkoa zirudiena ere errealtate bilakatu zen. 'Jaialdi elebiduna' ere Patxi Villamor, Rosa Valderrama, Ibai Rekondo eta Gorka Knörrekin. Ikaragarria!

Martxoaren 3ko gertakari lazgarri eta kriminalak zirela eta, langile guztiei elkartasuna adierazteagatik, 1976. urtean jaiak ez ospatzea erabaki zen.

1977. urtetik aurrera dantzaldiak egiten hasi ziren jendez gainezka egoten zen Tornay Medikua Plazan, jertseak zerura botatzen eta 'voló, voló, ...' doinu ospetsua abesten, lehenengo ikurriek ere suaren egunean gazteok osatzen zituzten hiru pisuko dorreen goialdea apainduz.

Jai egitaraua zabaltzen eta aberasten joan zen jai berria zen Judimendiko Auzo Elkarteak antolakuntza lana zuzentzen zuelarik: sokamuturra, krosa, Jai Batzordeko lehenengo txosnak, kirol lehiaketak, barrakak, III. Adinrentzako jaiak,... Musika talde ospetsuak hasi ziren desfileztatzen: Sincroman, Nekez, Zutautz, Basakabi, Alkartu,

Atabal, Ekaitz, Ilargi, Joselu Anaiak...

Gasteizko jende andana etortzen zenez, 1980. urtetik aurrera dantzaldiak parkera eraman ziren, jai gune nagusiaren papera hartuz.

1990. urtean koadrilak sortu ziren jaiak girotzeko eta jende gehiago parte hartzera erakartzeko. Hortik aurrera, Txosnen esparrua indartu egin zen eta gure kulturari eskainitako ekintza bereziek protagonismoa bereganatu zuten jai egitarauan, aurrekoak osatuz: euskal ezkontza, herri bazkaria; euskal jaiak, koadrilen kalejira, joaldunak eta momotxorroak...

Parkea birmoldatu ondoren, gaur egun sua parkera itzuli da eta Sefarad Plaza jai gune bihurtu da musika, txosna eta barrakekin.

Ikus daitekeenez, iragan oparora eta bitxikeriaz beterik gure auzoko jaiena; berebiziko nortasuna eta ondo merezitako ospea, suaren magiak eraginda beharbada.

Bukatzeko, arrakasta honen zergatia azaltzean bost arrazoi datozkit burura irakurleei proposatzeko: auzoan betidanik izan dugun lagun talde giroa, koadrilena, eta horren ondorioz, gauzak komunean egiteko joera; pertsona eta talde askoren inplikazioa, gure dendariak eta tabernariak barne; jaien data, solstizio berriari lotuak, suaren indarra eta erakargarritasuna gau berezi batean, jaiak ospatzera gonbidatzen dutenak; kalitatezko jai egitaraua zabala eskaintzeko egindako ahalegina, guztiontzako pentsatua; gure sustraiei itsatsirik, euskal giroa pizteko eta mantentzeko apustua.

Bukatzeko, Judimendi Jai Batzordearen izenean, gasteiztar guztiok gonbidaturik zaudete gurekin batera udari ongi etorria emateko eta prestatutako ekitaldiak gurekin gozatzeko. Kezka guztiak sutara eta ondo pasa!•



berria gure etxean euskara

Egin zaitez harpidedun

1. Kioskoko prezioa baino %10 merkeago
2. Banaketa **DOAN** goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat zozketak, **opariak** eta deskontuak.
4. Promozioetan **abantailak**



Orain eskaintza berezia

Ekaina amaitu baino lehen harpidetuz* gero, **2 opari aukeran**

MP3 Irakurgailu digitala



Kamera digitala



Deitu ORAIN!! **943 30 43 45**

Aukera ezazu, **BIZI euskaraz** **berria**

* Urte osoan eguneroko harpidetza izan behar du



- Koaderno hauek pentsatzen eta hausnartzen laguntzen dute.
- Buruketen soluzioaren logikan sartzen dute ikaslea.
- Arlo honetan zailtasunak izan ohi dituzten ikasleengana zuzendurik daude.

Sekuentziaturik eta eragiketak europar moneta bakarrarekin, euroarekin alegia, burutzeko egokiturik daude.

ARGIBIDEAK ETA ESKARIAK.


ekar

